

San Martinen etorrera



**Pertsona itsu eta ikusmen murrizkoei
egokitutako materialen Erakusketa**

Usurbe Antzokiko Erakusketa-Aretoan • Azaroaren 3tik 10era

BEASAIN

**MARTIN ARTOLAIN, ATAUNGO KUTXA:
“Zaila da lan banaketa gauzatzea”**

Fusioa gauzatu zenetik, 91tik, dago Martin Artolain Ataunen Kutxak duen bulegoan. Sanmartingo Plazan, Urzelaietan, egon da aurtengo uztaila bitartean Kutxa. Zahar xamarra, kutxazain automatikorik gabea eta intimidade gutxi omen zuen bulego hark. Oraingoa dotorea, berri usainarekin oraindik.

Beasaingo *munizipalean* sartu zen Martin, 82an, finantzen munduan. Zegamatik bueltan, Ataunen 4 urte daramazki 37 urteko beasaindarrak. Enpresa Zientzietan lizentziatua da.

Baserritar ugari

Ataundar askok baserrian lan egiten du. Baina jende gehienak Ataundik kanpo egiten du lan. *“Jende asko nekazaritza-tik bizi da hemen. Diputazioak dirulaguntza batzuk ematen dizkie. Baina lan-bide honek ez du beti erreleborik. Gazteek inguruko industri eta zerbitzuetan egiten dute lan”*, adierazi digu Martinek.

Hala ere, beste lekue-tan gertatzen den antzera, Ataunen ere langabezia

tasa handia dago. Baina, Martinen esanetan, Gipuzkoa mailan ondoen dagoen eskualdea da Goierri. Ekonomia goraka hasi dela nabarmentzen hasi bada ere, langabeziak hor dirau, eta hori konpontzeak emango du lana Martinen ustez. *“Agintariak hasi dira irtenbideren baten bila, eta lan banaketa proposatu dute. Baina hori zaila izango da epe motzean. Gizarteari askoz ere merkeago ateratzen zaio %20 ordaintzea, lan banaketa gauzatzea baino. Oraindik luzerako izango da langabezia. Dena den, zerbait aurkitu behar da, tasa honekin ezin baita bizi, arazo asko ekartzen ditu: kotizazioa, Gizarte Asegurantzaren arazoekin dabil, jendea luzaroko bizi da... Dena den, ideiak mugitzen hasi dira behintzat, eta ea zerbait egiten da”*. Era honetan, Ataun Aralarko ura botilaratzeko dagoen proiektua begi onez ikusten du Martinek, *“30 bat lanpostu sortuko bailituzke”*.

Etxebizitzak erosteko kredituak

Gaur egun Kontsumo-kredituak oso gutxi ematen dira. Baina etxebizitzak erosteko kredituak, asko eskatzen dira. Ataun aldean azken urteotan desberdintasunik ikusten




du Martinek etxebizitzaren inguruan: *“duela urte batzuk jende askok alde egiten zuen Ataundik, Beasain, Ordizia edo Lazkaora. Etxebizitza jartzzen zuten askok aitazkiatzat, baina nik uste dut herri handietako bizimodu bila alde egiteagatik joaten zela kanpora. Gaur egun hori ez da gertatzen hainbeste. Etxebizitzak egon badaude Ataunen, Kutxa gainera esaterako. Agian krisiagatik eta herri handietan etxebizitzak askoz ere garestiago daudelako edo, jendea Ataunen gelditzen ari da orain. Futbol-zelaien babes ofizialeko etxebizitzak egiteko proiektua ere badago. Udal berriaren nahia gainera, hori da, gazteak herrian gelditzea”,* azpimarratu du beasaindarrak. Ataunen dagoen *“lasaitasunak”* asko balio omen du Marti-

nen esanetan.

Iniziatibadunak

Ataunen gainera, ekintza ugari izaten omen dira, gazteak ekimen edo iniziatiba handikoak omen dira. *“Kultura eta kirol mailan batez ere, gazte jendea asko mugitzen da. Hitzaldiak, erakusketak, irratia, aldizkaria, ikus-entzunezkoak... asko izaten dira. Iaz Kirol Elkarteak sortu zen, eta lehiaketa askotan hartzen dute parte ataundarrek. Beti ari dira gauzak antolatzen. Kutxak, noski, laguntzak ematen dizkie”*.

San Martin jaiak gainera omen dira. Bueltatxoren bat eman beharko omen du beasaindarrak. Dena den, dominak, kopak eta abar, prestatuak omen ditu Kutxak ekitaldi ezberdinetako irabazleei emateko.



**kutxa fundazioa
fundación kutxa**

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**
Argitaratzailea:
"Goierritarrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Postetxe-gainean).

Tfnoa: 889612.

Faxa: 882719.

124. posta-kutxa,
20240 Ordizia.

Zuzendaria:

Loinaz Agirre.

Maketazioa:

Mikel Albisu.

Publizitatea:

Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna eta Estixu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria, Jon Aizpurua, Izaskun Salazar, Aitziber Murua, Rufino Iraola, Mari Joxe Madariaga, Idurre Eskisabel, Xabier Gartzia, Iraida Martin, Edurne Albizu eta Joxe Mar Matxain.

Fotokonposaketa eta maketazioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANtZA, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

Tirada: 5.100 ale. 4.900 harpidedun.

ISSN: 1132-0907


Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼

Itsuei egokitutako materialea ikusgai



Ikusmen arazoaz informatu eta sentsibilizatu nahi du Beasaingo Usurbe Antzokian dagoen erakusketak. Horretarako, itsua edo ikusmen murrizteko pertsonen autonomia eta normalkuntza lortzeko dauden baliabideetan oinarritu dira.

7 arlotan banatzen da erakusketa:

1- Errehabilitazio arloa: ikusmenaren arazo edo gaitasun nagusienak aurkezten dira bertan. Parthartzaileen artean ikusmen arazo desberdina antzematen duten betaurreko desberdinak banatzen dira, itsutasunak edo ikusmen murrizketak sortarazten dituen sentsazio eta arazoak ezagutzeko.

2- Hezkuntza arloa: Braile alfabetoaren oinarritzko funtzionamendua adierazten da, idazketa instrumen-

tuak eta hezkuntzarako dituen aplikazio ugariak. Baita ozentasuna edo erliebera egokitutako materiale didaktikoena ere.

3- Tifloteknologia (infomati-koa) arloa: in-

formatikara hurbiltzeko azpiegitura berri eta programa informatiko bereziak egin dira gaixo hauentzat.

4- Eguneroko bizitzako arloa: etxean eguneroko bizitzan erabiliz eta itsuaren autonomia garatzen duen materialea (iratzargailua, baskula, termometroak...).

6- Arte arloa: itsua arte eta ikusentzunezko mundura (zinea, telebista, antzerkia...) nola gerturatzen den erakusten duen bideoa ikusiko da.

7- Biblioteka arloa: Braile eta ozentasuna duten liburuak aurkezpena.

ONCEk eta Beasaingo Udalak antolatuta du erakusketa. Azaroaren 10era bitartean egongo da irekita. Ordutegia: astegunean: 19:00etatik 21:00etara. Larunbat eta eta jaiegunetan: 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Besteek esana

"Istilu gogorragoetara iritsi baino lehen, zentzu pixka bat baldin badago, egoki izango litzaike bai Hezkuntza Sailari, bai Lizeoko Batzorde Errektoreari gutxiengo handiarekin hizketan serio, gizabidez eta egin-kor hastea, uztarri berean jadanik inola ere ibili ezin diren bi alderdiei nori bere bidea egiteko aukera eskaintzeko".

Dionisio Amundarainek 'Egunkaria'n, 95-X-26an.

"Bilboko gotzai berria izendatzea, euskaraz esan oi dan bezala izugarrizko *kirtenkeria* irudituz zaigu, ta len ere zerbait supritu badegu, Vatikanok ez digu orain ere kontsolazio haundirik ekarri. (...) Nola ba, Afrikan inkulturazioa indarrez ots egin, ta gero gure euskerari olako ostikada eman?"

Leonardo Esnaola eta Rosa Mari Zubiarrain, Ruandako mixiolariak.

"Eskutsik gelditu den ehiztaria, odolak kiskalita, etxera eta tellapean sartzean, emazteak erru guztiak. (...)Gauza bat eskatzen dizuet eiztari denei. Tiro bat ere ez dezazutela bota birigarroa akabatzeko. Ordiziako perian 100 peztan salduta, pipa pakete bat erosteko dirurik ez dezute izango eta".

Ibai-Ertzek 'DV'n, 95-X-24an.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta



GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria

GOIERRITARRA dohain jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

.....

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Segura tradizio bizia

Segura tradizio bizia lemapean garatutako proiektuak irailaren 30ean itxi zituen ateak Seguran. Beraz, Idoia Lakarta eta Marta Ibañez de Aizpuruk antolatu dugun lan honi ondorioak ateratzeko momentua iritsi zaio.

Helburu nagusia ongi zegoen: Segura nonnahi entzuna izatea eta bere balore historiko-artistikoak ezagutaraztea. Beraz, uztailan lan eta lan jardun ondoren abuztu eta irailean herri barruko bixita gidatuz eta erakusketez gain honako ekin-tzak antolatu dira:

- Inaugurazio ekintza, abuztuan herri-tarrekina eta irailean bisita ofiziala Gipuzkoako Kultur Diputatuarekin.
- Seinaleztapena eta panelak jarri ziren herrian zehar, bai etxe garrantzitsuetan eta baita informazio puntua ere.
- Foiletoak eta kartelak ezarri dira bai Segura eta baita probintzian ere. Liburutegi, gizpuzkoar Udaletxe, Kultur Etxe, euskaltegi, jubilatuen etxe, etab.-etan jarri dira. Ermittak ezagutzeko foileto bat ere egin dugu.
- Alazne Goikoetxea herritarrak zuzenduta egindako bisita gidatuek toki desberdinetako jendea ekarri dute. Guztira 1.000 pertsona inguru etorri dira: segurarrak, goierritarrak, gipuz-



Segurako zenbait ume erakusketa bixitatzen Martaren azalpenekin.

koarrak, Bermeoko jubilatuek talde bat, Lazkaoko barnetegikoak, irakasleak, ikasleak, atzerritar turistak, familiarrak, Gipuzkoako Kultura Diputatuak...

- Segura eta Zeraingo ikastoletako 150 haurrekin ondarea ezagutzeko jokuak antolatu dira. Herriko zenbait eraikuntzen marrazkiak egin zituzten eta ikusgai egon ziren txanbolinpean.
- Komunikazio politika zabal bat egin dugu: irrati, telebista, egunkari eta GOIERRITARRAN.

Azkenik, erakusketaren arrakasta aipatu beharrean gaude. Aipatutako 1.000 bisitarien artean segurarrak izan dira bereziki, denon artean egin bainikuen erakusketa. Batzuk argazkiak, besteek dokumentuak, beste batzuk

dominak eta denek, orokorrean, beraien iritzia.

Beraz, Gipuzkoako Diputazio eta Deustuko Unibertsitateari esker garatu den proiektu hau aurrera pausu bat izan dadila espero dugu. Orain zuen esku dago. Eta bukatzeko, herri guztiari eskerrak eman nahi dizkiogu beraien artean hain ondo onartzeagatik eta proiektua aurrera eramaten laguntzeagatik. Mila esker eta beti arte.

Idoia Lakarta eta Marta Ibañez de Aizpuru

Akatsa zuzenduz

Joxepa Madariagari barkamena eskatu beharrean gaude oraingoan, GOIERRITARRAREN 79. zenbakian huts latza egin bainikuen. Txandaka sailean Zuria eta beltza artikulua idatzi zuen Joxepak. Bertan bukaera honela agertu zen: *Putzu txikia zapaldu gabe itsasoan murgiltzen denaz, eraiki!* Baina berez honela behar zuen: *Putzu txikia zapaldu gabe itsasoan murgiltzen denaz, erruki!* Nabaria denez, artikulua horrela bukatzeak bere esanahia erabat aldatu zuen. Baina presaka ibiltzeak edo bere idazkera ez ulertzeak horrelako ondorioak ekarri ditu.

Erredakzioa

Egunkaria

Egin zaitez harpidedun

Goierriko harpidetzak: 88 20 25



LANCIA ETXE - AZPI

☎ 88 10 61 - 88 29 46
ORMAIZTEGI




ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

Intereseko Telefonoak

BEASAIN

Ertzaintza:	880961
Udalzaingoa:	881355
Taxiak:	880367
Epaitegia:	881681
Notaria:	888789
Udaletxea:	885900
Suhiltzaileak:	881355
DYA:	464622
Gurutze Gorria:	882835
Zumarragako Hosp.:	723913
Anbulatorioa:	461111
Anbulantziak:	880957
Butano:	882576
Posta Bulegoa:	880967
Pesa:	880668
Estellesa:	452949
Renfe:	880853
Alkoholiko Anon.:	284515
Hies Inform.:	427666

Errezeta



Mari Jose Aldasorok emana

Toki-Alai jatetxea Arama

LIMOI TARTA

Osagaiak: 50 gr. gurin edo mantekila, 5 goilarakada azukre, 3 limoi, 3 arrautza eta litro erdi esnegain likido.

Molde batean hojaldrea jarri eta labean sartu hojaldrea egiteko, ordu erdiz.

Beste ontzi batean, gurina eta azukrea urtzen jarri. 3 limoien zuku edo zumoa eta

limoi baten azala errailatuta gaineratu. Guztia 3 arrautzekin eta esnegainarekin nahastu. Hojaldrearen gainean jarri eta labean ordu betez eduki.

Gainetik apaintzeko, 3 arrautza txuringo altxatu eta apaindu. Labean sartu, gorritu arte.

Bota bertsoa



Joxepa Madariaga Gaia: Trikitixa Doinua: Neskazahar bat tentatzen

Inpernuko auspoa zabaldu ta itxi porrusalda ritmoan kantatuaz bixi, kriskitin ta kraskitin dantza ta irrintzi, nahi orduko ez gara festara iritsi.

Auspoak izaten du panderoa lagun, tan, tapa, tan, tapa, tan astindu dezagun, atsedean hartu gabe aste ta jaiegun, estresa lasaitzeko jo ta jo ihardun!

IPARRAGIRRE ANAIAK, C. B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfno. 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfnoa: 880543 BEASAIN



TOKI-ALAI JATETXEA

bataioak, jaunartzeak
bazkariak, afariak
eguneroko menuak

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA

☐CAF-ELHUYAR ZIENTZI DIBULGAZIORAKO SARIAn parte hartu nahi dutenek, azaroaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dituzte lanak. Oinarriak gogoratu. Bi maila izango dira:

* **A maila:** idazle berriek idatziriko zientzia eta teknologiaren dibulgazio artikulak. Elhuyar Zientzia eta Teknika aldizkarian gehienez bi artikulak argitaratu dituztenak hartuko dira idazle berriztat. Euskaraz idatziriko zientzia eta teknologiaren dibulgaziorako edozein lana lan aurkez daiteke. Lanen luzera 3-6 bitartekoa. Lanak irudi eta grafikoz hornituko dira. 3 sari izango dira: 100.000, 50.000 eta 25.000 pezeta-koak.

* **B maila:** EAEko, Nafarroako edo Ipar Euskal Herriko 2. mailako Irakas-kuntzako edozein gelak har dezake parte. Gaiak eskolarekin edo eskola dagoen herri edo eskualdearekin lotuta egon beharko du. Luzera, 6-10 orrialde bitartekoa izango da, irudi eta grafikoz horniturik. Sariak: 1. goa 150.000 pezeta dirutan eta 50.000 pezeta material didaktikoan; 2.a 75.000 pezea dirutan eta 50.000 pezeta material didaktikoan.

Lan bakoitzeko 3 ale bidali beharko dira Elhuyar Kultur Elkartera. (Asteasuain, 14 Usurbil).

ANTZERKIA



✓ Ataun:

Azaroak 10, 'Pecata Minuta' Auzoeta Udal Kiroldegian, 22:00etan. Sarrera 600 pezeta.

✓ Lazkao:

Azaroak 16, 'Bederen 1' antzerki teldearen 'Eztei gaua' lana, 21:00etan Azeria zineman.

MUSIKA

✓ Arama:

Azaroak 10, Gozategi taldea, plazan, 21:00etan.

✓ Ataun:

Azaroak 11, Tapia eta Leturia, Siniestro Total eta Def Con Dos, Kiroldegian, 21:30etan.

✓ Beasain:

Azaroak 4, Fab taldeko abeslaria den Stuart Kell-

yren errezitaldia, Aterpe Tabernan, 23:00etan.

Azaroak 11, Azpeitiko abesbatzaren kontzertua Andra Mari Zeruruaren Parrokian, 20:30etan.

Azaroak 11, Rocioren errezitaldia (flamenko-rokka), Aterpe Tabernan, 23.00etan.

✓ Ordizia:

Azaroak 15, Capilla Peñaflorida eta talde instrumentala Eliz Parrokian 20:00etan.

Azaroak 16, "Farinelli" bideoa, Barrenan 19:30etan.

BERTSOAK

✓ Ataun:

Azaroak 5, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, Auzoeta Kiroldegian, 17:30etan. Parte hartzaileak: Unai Agirre, Ibon Karrera, Mikel Mendizabal, Jose Ramon Elorza, Maddalen Lujanbio eta Martin Reza-bal 'Olaso'.

ZINEA

✓ Beasain:

Azaroak 3, "Malicia", 19:30 - 22:15.

Azaroak 4, "Johnny Mnemonic", 19:30 - 22:15.

Goieniz Zine Kluba:

Azaroak 9, 'Ju Dou, se-

'Ju dou, semilla de crisantemo' - Zhang Yimou (Txina, 1990)

Filmean osabaren aintzina-ko tindategian lanean diharduen gaztearen eta Ju-Douren (agurearen azken emaztea) arteko amodio sutsu bezain dramatiko kontakuzen zaigu. Zahar antzuak neskatxa gaztea erosi zuen oinordeko bat emango zion esperantza hutsalean, eta amoranteen ezkutuko harremanetik sortutako semeak duen identitate ilunak egoera larriak eragingo ditu, amaierako tragedia iragarritz.

Mugikortasun eta kolorez betetako ingurune batean oinarritako giza-jokabideak aurrez-aurre topo egingo dute: amodioa eta gorrotoa; zekenkeria eta eskuzabaltasuna; griña eta ezintasuna; xamurtasuna eta ankerkeria; gogoia eta nahigabea; pozak eta beldurak.

milla de crisantemo', Usurbide Antzokian, 21:00etan.

✓ Ordizia:

Azaroak 3, "Waterworld", 22:15.

Azaroak 4, "Waterworld", 19:30 - 22:15.

Azaroak 5, "El regreso de Lassie", 16:45. "Waterworld", 19:30 - 22:15.

Azaroak 6, "Waterworld", 19:30.



BIÑASPRE

USAINDEGIA

EDERGINTZA

OPARIAK

Kale Nagusia, 8
ORDIZIA

☎ 88 13 37

IKUSENTZUTEKOAK



✓ Idiazabal:

Azaroak 9, Marron-en "Antartida" emanaldia, Kultur Etxean 20:00etan.

Azaroak 16, Marron-en "Indonesia" emanaldia, Kultur Etxean 20:00etan.

BESTELAKOAK

✓ Beasain:

Azaroak 15, Pello Añorga ipuin kontalaria Ezkiaga Auzoko Liburutegian, 17:30ean.

✓ Ordizia:

Azaroak 16, Virginia Imazen ipuin kontaketa, Udal Liburutegian 17:00etan.

HITZALDIAK

✓ Beasain:

Azaroak 6, 'Emakumezkoen Elkarteak eta emakumei buruzko IV. Ihardunaldia'ri buruzko hitzaldia, Asmuben, 17.00etan. Hitzlaria: Txaro Arteaga, Emakundeko zuzendaria.

Azaroak 7, 'Stressaren

eragina emakumeetan' hitzaldia, Asmuben, 16:00etan.

Azaroak 8, Astrologiari sarrera hitzaldia, Asmuben, 17:00etan. Hitzlaria: Mila Aierbe astrologa.

Azaroak 10, 'Emakumea eta lana'ri buruzko ikastaroa, Alazne Eizagirrekin, 15:00etatik 19.00etara, Asmuben.

IKASTAROAK

✓ Beasain:



Azaroaren 6, 8 eta 10ean, autoprotekzioa, prebentzioa eta larrialdietan zer egin ikastaroa, Asmuben, 9:30tik 11:30ra.

Azaroaren 9an hasita, Erretiratuentzako automasaia ikastaroa. Klaseak astearte eta ostegunetan izango dira, 9:30tik 11:00etara, Antzizar Kirolegian. Izenematea Erretiratuen Etxean egin beharko da. Matrikula, 300 pezeta.

ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Azaroaren 4tik 24ra bitartean, Juanjo Romanoren

erakusketa, Aterpe Tabernan.

✓ Ordizia:

Azaroaren 3tik 17ra bitartean, Manu Ariasen pintura erakusketa Barrenan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Azaroak 5, mendi-irteera Garinera eta Finalistaren Egunaren ospakizuna.

Azaroak 12, Mondarrain - Lapurdi.

Ordiziako mendizaleak:

Azaroak 5, Urto - Arano.

Azaroak 12, Etxegarate - Ordizia.

Pausogaizto, Goierriko mendizaleak:

Azaroak 11-12, Mountain-Bikez Aizkorriara.

Idiazabalgo mendizaleak:

Azaroak 5, Bakaiku - Itsasgain (beteranoen ibilaldia).

GOARDIAKO BOTIKAK

Azaroak 3-4-5: Larnaga; *6*: Cuesta; *7*: Arriola; *8*: Urbizu; *9*: Atorrasagasti; *10*: Azpilikueta; *11-12*: Cuesta; *13*: Jauregi; *14*: Larnaga; *15*: Cuesta; *16*: Arriola.



Azoka loretsua

Koloretsua, loretsua izan den asteazkeneko azoka, urtero Santu Guztienaren inguruan gertatzen den bezalaxe. Sarta handiak eta txikiak, merkeagoak eta garestiagoak; denetarik.

Gainontzean ohikoa. Ehi-za ugari, sasoiari dagokionez. Eper bakarria azaldu zen (1.200 pezetan); 25 oilagor (2.000an), 60tik gora uso (900-1.200ean); 100 birigarro (100 pezetan) eta faisán 1 (1.500ean). Perretxikueta bertako 12 kilo onddo azaldu ziren (2.500-2.800) eta giberlurdinak 6 bat kilo (1.500).

Bertako piku, baxakan eta mahatsik ez dago jada. Lekak, oso gutxi (300-350); Bruselasko azak 250ean daude; eta babarrun beltza, zertxobait merkexego, 700-900ean.

Kanpokoetan, laranjek beheranzko joera hartu dute, dexente jaitsi dira: 125-150ean saldu da kiloak. Mandarinetan, klementinek ere behera egin dute eta besteek gora: 175-250 bitartean saldu dira.

LOINATZ

Taberna Jatetxea

Bazkari, afari, ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN



*Xabier Gartzia
(Beasaindar irakasle
eta idazlea)*

***“Ni ez nauzue
zurikeriazale,
ordea, eta
euskaldunekiko
hainbat
erdaldunen
arrazismoa
zigortzen dudan
hein berean
zigortu nahi
nuke euskaldun
batzuren
arrazismoa”***

Arrazakeriaren auzia eztabaidagai jarritz gero, nekez azalduko da gutako inor gu eta gutarrak ere arrazistatzen jotzen. Arrazismoari gu ez bezalako kontua dela deritzogu, guk geuk ere gorabehera horretan mea culpa-rik kantatu beharko ez bagenu bezala. Baina egiari leku eman nahi baldin badiogu, hemen ere arrazistak udaberrian zizak bezain ugari erne direla aitortu beharrean gaude.

Goikoak irakurrita, honez gero baten batek pentsatuko zuen gaurkoan etxekalte etorri naizela, bere ustez gordean eduki behar baitira nik estalia kendu eta ageri-agerian utzi nahi ditudan gure zenbait arrazismo-kontu. Ni ez nauzue zurikeriazale, ordea, eta euskaldunekiko hainbat erdaldunen arrazismoa zigortzen dudan hein berean (oroitu, besteak beste, ‘Euskaldunak eta espainolak’ artikuluan para nituenak) zigortu nahi nuke euskaldun batzuren arrazismoa. ‘Egan berria’ musika-taldearen buelo arrazista zaharrak eman dit horretarako hizpidea.

‘Egan berria’ren buelo arrazista zaharra beren lehen diskaren lehenabiziko kantan ikus daiteke: “Maketoak etorri ziren mixeriak behartuta, zabal ditzagun gure atea, hartu beso zabalik, geureganatuta”. Gezurra dirudi oraindik ere, XX. mendearan hondarretan, euskaldun batzuk maketo hitz iraingarri eta arrazismoz beterikoa erabiltzea. Gaur eta hemen pertsona bati maketoa esan eta pertsona hori, beso zabalik hartuta, bereganatu nahi duela esaten duena zurikerian edo gezur hutsean ari da. Ez baitugu sekula guretar egingo iraintzen dugun pertsona hori, ez baitzikiogu inoiz etxeko atea zabalduko mesprezuz hartzen dugun pertsona horri. Beste behin darabilte Xabier Saldiasak eta Michel Labegueriek maketo hi-

Arrazakeria (I)

tza aipatu kantan: “Gaskoin edo maketo, ez dugu etsaia, bainan euskal semea da gure anaia”. Irakurtzen dakienak ondo ulertu du hor maketoa gure anaia ez dela jartzen duela. Baina nola arraiotan geuregana ditzakegu geure anaiatzat hartzen ez ditugunak?

Maketoak, koreanoak, belarrimotzak, mantxurianoak, hezurbeltzak, muturbeltzak... Hitz horiek erabiltzean, erdaldunekiko irain, laidu, mesprezu, erdeinu, ezinikusi eta arrazismoa adierazi eta erakutsi ditu euskaldunak. Beraz, izan da arrazakeriarik hainbat euskaldunen partetik. Baina, izan da eta ezkutatu egin da, ala, aitzitik, lehengoak orainean dirau oraindik?

Hobera egin dugulakoan nago, baina, oraindik ere, hemen arrazismo-zipristinak gelditzen diren ustekoa naiz ni. Areago, gure historiaren pasarte beltzak --gure arrazakeriari dagozkionak, noski-- konplexurik gabe argitara ekartzen ez ditugun bitartean, beldur naiz ez ote dugun arrazakeria bidelagun izaten segituko. Hortaz, geure iraganaz mintzatu beharra dago, geure orainaldia ulertu nahi badugu behinik behin.

Geure iragana diodanean, euskal nazionaliston lehenaz ari naiz noski, eta, guztiz ezaguna denez, Sabino Arana dugu ahanztezinezko zimentarria. Ezin labur liteke artikulua bakar batean Sabinoren ekarri aparta, oinarri sendoak jarri baitzituen herri hau inoiz bere buruaren jabe izan dadin. Mereziko luke luze aztertzea herri honek nor izaten segi dezan egin zituen ahaleginak, merezikiko luke gogoan hartzea hizkuntza honen

aldeko bere lanak... Baina, euskaldunon hobe beharrez ari zela, izan zuen akatsik, izan baitzuen arrazakeriaz hornituriko mezu ugari. Arrazakeria hori zalantzan jartzen duenik balego, halakoak, bere zalantzak uxatzeko, Sabinoren artikulua hauek (Sendoa Argialetxeko bere ‘Obras Completas’ en azaltzen direnak, seinalatzen ditudan orrialdeetan hain justu) dauzka irakurri beharra: ‘El Circulo maketo (244); La invasión maketa (261); Un maketo y un maketófilo (302); Maketismo (326); Un fino maketófilo (354); Un alcalde maketófilo (452); Escuela maketa (543); La pureza de raza (545); Del origen de nuestra raza (1340); Los maketos pintados por si mismos (1390); Los chinos en Euskaria (1780)’.

Sabinok ez zuen on askorik ikusten jakin izan etorkin jendearengan. Maiz agertzen da etorkinekiko ezinikusia bere idatzietan, eta horien ale bat aukeratu nahi izanez gero, Miguel Servet-en artikulua bati egiten dion iruzkina aukeratuko dut. Aipatu artikuluan gogor hartzen ditu Miguel Servet-ek espainiarrak, akatsak hemendik eta akatsak handik ikusten dizkiela. Baina bere gogorkeria gorabehera, motz gelditzen da oraindik Miguel Servet Sabinoren iritziz, bere ustez espainiarrak Servet-ek pintatzen dituenak baino askoz arbuigarriagoak baitira. Honela dio: “Tal es la pintura trazada por Miguel Servet de sus paisanos los españoles; incompleta, por no haber trasladado al cuadro su autor sino una pequeñísima parte de los muchos abyectos vicios que los hijos de la pedantesca y tenebrosa Maketania adolecen”. Sabinoren etorkinekiko ideiak Jesus Amen esan orduko zabaldu ziren euskal bazterretan, eta horretaz --eta arrazakeriaren inguruko beste zenbait gogoetat-- arituko natzazue hurrengo artikuluan.

Santu Guztienetan

Bazen hiru hilabetean behin gure etxapean amona txiki ximur bat goitik behera beltzen jazten zena. Extremadurako ez dakit zein herritatik urte asko ez zela etorria, senar eta senideak heriotzak eramanez ondoren, bizimodu hobearen bila aspaldi emigratutako seme-alabek ekarria. Behin hiru hilabete txanda amaituta, azkar asko ateratzen zuten amonaren maletatxoa atarira gure etxekoneko ziren alaba eta suhiak, eta bera inoiz baino makurrago ateratzen zen pardelaren atzetik, beste hiru hilabete tarako bi *pardelak* etxera eramango zituen semearen zain.

Sarri topatu izan nuen eskaileretan eta beti nahi izaten zuen diosaletik haruntzago joan, hangoaz eta hemengoaz hitz egin, nahiz eta nik ez nion ezer askorik ulertzen, azentu gora-beherak zirela-eta. Baina samina zerion hitz bakoitzeko, deserriak baino gehiago etxekoen artean arrotz eta ez deus izateak sortzen zion pena. Berriketarako gosea izan ohi zuen, etxeko ixiltasuna asetzeko premia.

Goiz batean, goiko etxebizitzatik zetozen negar eta lantuek esnatu ninduten. Seme-alabek, suhi-errainek zein bilobek desesperaziotik hurbileko ziruditen garrasiekin hartu zuten amonaren heriotza. Goitik behera beltz-beltz jantzi ziren guztiak eta zurerik garestieneko zerraldoa erosi zioten.

Santu Guztieneko inguruko hilobiek baino lau bider lore gehiago izaten du gure etxapeko amonarenak. Aurten ere halaxe izango ditu, seguru.

□ *Idurre Eskisabel Larrañaga*



**MUJKA
LIBURUDENDA**

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Horoskoporik irakurtzen al duzu?




**Maialen Urkiola
10 urte, ikaslea
beasaindarra**

Normalean ez dut irakurtzen, tarteka bai. Ez dut sinisten, baina batzutan asmatu egiten du horoskopoak. Ni Acuario naiz.



**Guzman Vazquez
28 urte, ordiziarra
euskara irakaslea**

Ez, txorrada bat iruditzen zait. Irakurtzen dudanean, parre egiteagatik irakurtzen dut. Parasikologiarekin zerikusia duten gauzak gehiago hartzen ditut kontuan.



**Joxe Luis Aranburu
27 urte, administraria
itsasondoarra**

Ez dut sinisten eta ez dut irakurtzen. Kuriosidaderek ere ez dut izaten. Egunkarietan egunero etortzen dira, baina begiratu ere ez ditut egiten.

▼ ▼ **Itsasondoko zenbait kontu labur** ▼ ▼

Entzun nituen moduan jartzen ditut:

“Itxesako etxea bakarrik omen uan gara artan, inguruan bizi lagunik gabe. Egun batez, goizean goiz etxeko nagusia atarira atera omen uan eta urrutian beste etxe bat egiten asi zirala ikusi. Ura ikusita, barrura sartu eta esan zian: *‘Ondo bizitzeko gertugi asi dituk etxe berri bat egiten’*”.

“Irutxikitako zelaiera joaten omen ituan token jokatzera, ontzako urrezkoekin jokatzeko omen zien. Bertan jaso gabe utzi eta urrengo egunarte joaten omen ituan”.

Esteban Otegi Goenaga (Valentzia) (Bere aita zenarengandik jasoak)

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

TAPIZ ETA GAINETADURA
TAILERRA

BIOK, C.B.

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralera menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pza. + BEZa

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin.

On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

Ba al dakizu?

GOIERRITA-

RRAK 6 URTE bete ditu. Sekula baino harpidetza gehiago ditu momentu honetan: 4.900 harpide eta 5.100 ale botatzen dira hamabostero hamabostero. Ia 20.000 irakurle dituela kalkulatzeko da GOIERRITARRAK. Harpidetzak etengabe gora doaz, baina ez horregatik dirulaguntzak. Bestalde, Goierriarrak Kultur Elkarteak egindako bazkide kanpainaren ondoren, 60 bazkide egin dira.

Horixe da hain zuzen ere, GOIERRITARRA aldizkaria laguntzeko modurik onena: Kultur Elkarteko bazkide egin eta urtean 1.500 pezetako kuota ordaindu.

AITA LUIS IRIZAR ormaiztegiarra urriaren 11an hil zen, Liman (Peru) 87 urte zituela. Gaur egun Peruko Callao eskualdeko gotzain den Migel Irizarren osaba zen. Luis bera ere, Peru, Colombia, Puerto Rico eta inguruetan ibilia da urte askotan. Ohianean bizi izan da urte askoan Luis. Orain 60 urte inguru eman zuen meza berria Erroman. Ondoren, 1935ean Gabirian bere lehen meza ospatu zuten. Luisen ilobak, Migelek, eman zuen meza Ormaiztegiako eliza eraberrituan.

ZALDIBIKO UDALA INTSUMITU. Gerardo Uribetxeberria, Zaldibiko udaletxeke langileak urriaren 5ean izan zuen epaiketa, intsumitu izateagatik. Bi urte, lau hilabete eta egun bateko behin-behineko zigorra ezarri dio epaileak. Dena den, epaia jakin aurretik, Zaldibiko Udalak Uribetxeberria aske uzteko eskaria egitea erabaki zuen. Horrekin batera, 1990eko akordioa berretsi zuen; hau da: espainiar armadari edozein mota-tako kolaboraziorik ukatzea eta Kontzientzia Eragozpen Lega errefuxatu eta prestazio sozial zerbitzua egingo duen eragozlerik ez onartzea.

10-GOIERRITARRA



BEASAIN-DURANGO

errepideko lanak azaroan hasiko omen dira. Anzizarko lotunea eginda dago jada. Hurrengo fase honetan, beraz, Ormaiztegiara bitartekoa burutuko da. Uda parterako bukatuta egotea espero da.



TXEMI ARTEAGA beasaindar preso 182 egun egon da bere ziegatik edo zeldatik atera gabe. Albacetekeo kartzelan dago beasaindarra. Itxialdi honekin moduluetan beste euskal presoekin batera egotea eta bisita orduak guztiek egun eta ordu berean izatea eskatzen zuten, senitartekoak elkarrekin joan daitezen Albaceteraino.

ALDAIAREN ASKATASUNA eskatzeko manifestazioa Beasainen egin zuten, urriaren 26an, Gesto por la Pazek antolatuz. Bien bitartean, astelehenetako konzentrazioek, Amnistiaren Aldeko Batzordeek (Euskal Herria askatu lemapean) eta Gesto por la Pazek (Aldaia askatu lemapean) antolatutakoek, aurrez-aurre jarraitzen dute.

AGAUNTZA


ERREKAN arrainak hilik azaldu ziren urriaren 18an, Eguzkik salatu duenez. Diputazioko ingurugiro teknikariek analisiak egiteko muestrak hartu zituzten eta emaitzen zain daude orain udal arduradunak.

BASERRITARRAK IRLANDARA. Mendi Nekazari Elkar-teak, Goimenek, antolatuta, Gipuzkoako baserritarrek Irlandara joateko aukera izango dute azaroaren 13tik 19ra. Bertako baserri giroa, arazoak eta irtenbideak ezagutzea du helburu bidaia. Bidaia egin nahi dutenek, Goimenek Ordizian duen bulegoan (Santa Maria, 4-1.) eman beharko dute izena.



IGOR EGUREN ordiziarra Euskal Herriko Unibertsitateko errektore izateko aurkeztu da, Irauli kandidatura intsumisoaren izenean. Dena den, atzera bota dute kandidatura hau: errektoreak katedraduna izan behar duelako eta kandidatura EHUaz kanpoko jendeak osatua delako.

ARRIARANGO URTEGIKO eskulturetariko bat, urtegiaren sarreran dagoen zutabez osatutakoa, puskatu egin dute ezezagun batzuk.



RUFINO IRAOLA zaldibitarak Orixeren omenezko VIII. bertso paper lehiaketa irabazi berri du, helduen mailan. 'Aitona Mantzanila' izenburuko lana aurkeztu du Rufinok.

GIPUZKOAKO BERTSO TXAPELKETA martxan doa poliki-poliki. Orainartean eman duena

hauxe da: Usurbilgo lehen saioan Iñaki Murua izan lehena 622 punturekin. Finalaurdenetarako txartela eskuratu du zuzen-zuzenean. Aitor Sarriegi gazteak 4. egin zuen 557 punturekin eta Joxe Munduate ataundarrak 6. 532 punturekin. Arrasateko saioan goierriar bakarra aritu zen lehian: Xabier Zerberio itsasondoarra. Nahiko pattal aritu omen zen eta 4. egin zuen 534 punturekin. Mikel Aranburu beasaindarra Alegian aritu zen azaroaren 1ean, baina inprentako kontuak direla-eta, ez dugu horren berririk. Hurrengo saioa Atauen dugu, hilaren 5ean. Bertan arituko dira Mikel Mendizabal eta Jose Ramon Elorza goierriarrak. Ataungo saioaren berri zehatza agendan duzue.

PATXI ZUBIZARRETAk, Gerardo Markuleta, Xabier Etxaniz eta Manu Lopez Gaseni idazleekin batera, 'Los Prohibidos - Debekatuak' izeneko gazte literatura irakurketa gida egin du, eta dagoeneko kalean dago. 23 liburu euskaraz eta 22 gazteleraz. Arabako Foru Aldundiaren

laguntza izan dute gida ateratzeko. Aukeraturako liburuen artean Patxi Zubizarretaren 'Eztia eta ozpina' eta '1948ko uda' daude. Baita Xabier Mendiguren Bereziartuk euskaratutako 'Eskua bete izar' eta 'Hodeia'. Liburu guztiek iruzkintxo bat dute ondoan, eta liburuaren beraren pasarte bat. Gidaren bukaeran irakurlearen eskubideak sartu dituzte lau idazleek.

AZAROAN ITXITA izango da Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoa, barruan moldaketa lanak egin ahal izateko. Dena den, hitzorduak, kontsultak, maleta didaktikoen eskararak eta abar telefonoz (88 99 00) erantzungo dira.

JESUS JAUREGI, Seguran bizi den eskultoreak, Zarauzko industriagune batean jartzeko lehiaketa irabazi berri du. 70 lan aurkeztu ziren. 'Transformazio unea' du izena artelanak. Segurako kronikan duzue informazio gehiago.

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumaraga, 46 Kma.

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN

**EROSKI
KAFETEGIA**

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824

BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070

BEASAIN

IKASTEK


AKADEMIA

95-96 IKASTURTEA

- Maila eta arlo guztiak
- Laguntza pertsonalizatua
- Irakaslego trebatua
- Kalitate eta profesionaltasuna

Informazioa: ☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5 BEASAIN



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN

INAZIO URBIZU ZEGAMARRA ETA JOXE MANUEL ORIA ZERAINDARRA Ehiz garaian lanez lepo Partzoneriko goardak

Urtean zehar hainbat eta hainbat lan egiten dute Altzanipe Partzoneriko goardek, herrimendiak eta lur partikularrak zaindu eta kontrolatzen. Pilarika inguruan hasi eta Sanmartin ingururarte, ordea, inoiz baino gertuagotik jarraitzen dute ehiza.

Goierriko 4 herrik (Segura, Idiazabal, Zegama eta Zerain) eta Arabako beste 2 herrik (Asparrena eta San Millan) osatzen dute Partzoneria. Ospetsua da oso ingurua, bertan dauden ehizeko postuak direla eta. Uso garaian bete-betean gaude. Tiro hotsa, kartutxo zorroak, eskopeta bizkarrean hartutako ehiztariak... ugari ikusten dira Otzaurte inguruetan. Batzuek ehizaren alde eta besteak aurka. Horixe izaten da garai honetako hizketaldirako beste gai bat.

Usua gehitzen?

Baina usoak gutxitzen edo gehitzen ari ote diren jakiteko, Zegamako Sahadar mendiko behatoki edo obserbatorioan usoak zenbatzen aritzen dira egunero Diputazioko lankideak. Inazio eta Joxe Manuel ere laguntzen aritzen dira tarte-beraien ohiko lanaz gain. 5 urte daramazkete uso kontaketa. "Bi baidada hartzen ditu obserbatorioak. Gutxi-beherako zenbaketa egiten dute, aproximazio bat. Urtero baldintza berdinetan egiten da ondorio baliagarriak ateratzerako", adierazi digu Joxe Manuelek. Oraindik garaiz omen da ondorioak ateratzeko. "Ezin da esan aurre-



Inazio Urbizuk eta Joxe Manuel Oriak 10 urtetik gora daramazkete basozaintzan.

ra edo atzera egin duen. Faktore natural askori dago lotuta usoak hemengik pasatzea, haizearen arabera pasatzen dira leku batetik edo bestetik", gaineratu du. Frantzian askoz ere lehenagotik ari dira lan honetan eta hauen datuen arabera, usoa gehitzen ari da.

Kontaktarako metodoa

Metro karratuka kontaktzen dira usoak. Multzoan edo sakabanatuta doazen ikusi, eta gutxi gora-behera zenbat uso doazen kalkulatzeko da. Bandaren metro karratuekin biderkatuko da usoen kopurua. Jakina denez, kalkulu hau ez da inoiz zehatza izango. Iazko datuen arabera, 275.055 uso pasatu ziren; duela 2 urte 410.022 eta 92an 297.613. Asko edo gutxi, hemendik egunero pasatzen da omen usoa. "Urriaren 16, 17 eta 22an ikaragarri pasatu zen. Ehun-

daka pasatu ziren. Bota berri, 98 postu horietan, 15en bat", argitu du Joxe Manuelek. Urte guztiak desberdinak izaten dira; 80, 83 eta 88. urteak oso onak izan ziren. 88an bi postuen artean 319 uso bota ziren egun batean. Goarden esanetan, pasatzen den kopururako, oso uso gutxi botatzen da.

Gehienak eskopeteroak

Ez dira ehiztariak Inazio eta Joxe Manuel. Baina "ehiza behar bezala eginez gero, ez dut uste kalte ikaragarri egingo duenik ehizak", esan du Inazio. "Ikusi da zenbait lekutan usoak kalte asko egin duela, eta beste era batera hiltzen dituzte, pestizidarekin eta horrelakoekin. Hemen denboraldian hiltzen diren mila usorekin ez da kalterik egiten. Babestuta dauden beste espezie batzuk hiltzea, hori bai, gaizki



Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnua: 88 94 82
20200 BEASAIN

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabe

Larraitz bidea



GAINTZA

88 98 48

ikusten dut”, gaineratu du Joxe Manuelek. Dena den, eskopeteroak omen dira “gehienak” Joxe Manuelen esanetan. “Bizimodu honek behartzen gaitu nolabaiteko eskape bat izatera. Ehiza horrelako arrazoi bat da zenbaitentzat. Motxila bizkarrean hartu eta mendira joateari ez dio zentzurik hartzen eta eskupetarekin joaten da”.

Hori dela eta, lege hauste ugari egiten da. Zigorrak jartzeari ere egokitzen zaie goardei. Hiru tiroako eskopeta dago baimenduta orain, eta



98 ehize postu daude Partzonerian.

gehiagokoa erabiltzeagatik; Partzoneria kotoa da, baimen berezia behar da ehizerako, eta baimenik hori ez edukitzeagatik; babestutako txoriak botatzeagatik, hori bai, gero eta gutxiago botatzen da orain; lizentziarik gabe ibiltzeagatik; ‘arma baimena’ kadukatuta edukitzeagatik... jartzen dituzte zigorrak. “Hasieran, bolada batean, dexente sartzen genituen. Orain jendea nahiko ondo ibiltzen da eta ez da hainbeste izaten”, gaineratu du Inaziok. Hala ere, bada euren konpetentziatik kanpo dagoen beste debeku bat ere:

“debehatuta dago ehiza saltzea, komertzializatzea. Bakoitzak bere kontsumorako bakarrik ehizatu dezake. Baina Ordiziako azokan eta zenbait harategitan saltzen da”, argitu digute.

Urte osoko lana basozaintzan

Ehizaren mundu hau hala ere, Inazio eta Joxe Manuelek hilabete bakar batean egiten duten lana besterik ez da. Askoz ere zabalagoa da goarden egin beharra. “Denetik piska bat”, Inaziok esan duenez. Bi lan eremu dituzte, lur partikularrak batetik, eta herrimendiak edo Partzoneria bestetik. Partikularretan, mozketaren bat egiteko, sua egiteko... baimenak eskatu; bideak irekitzeko, kimatu, garbiketak e.a. egiteko Administrazioak laguntzak ematen dituzenez, hori kontrolatu, txostenak aurkeztu... Herrimendietan, berriz, mendia garbitu, larretoki edo egurtoki jartzen ari direnaren segmentua, makinak zaindu, entresaka egin behar denean markatu, itxiturak egin, garbiketak egin, su arriskua dagoenean adi egon... eta beste hainbat eta hainbat gauza. 82 eta 83. urtetik ari dira zeregin honetan.

Partzoneriko lurra Segura, Idiazabal, Zegama, Zerain, San Millan eta

Asparrena herriena da. Diputazioak administratzen du eta 220 portziotan dago banatuta. “Herri bakoitzak bere portzioak ditu, portzentaiaren arabera. Ehizeko postuetan zerikusia dauka horrek. 98 postu daude guztira, eta erdiak, subastara ateratzen dira. Beste erdiak, proportzionalki udaltxeetan banatu eta egunero zozketa-tzen dira”, argitu digute.

Garbiketa lana

Garbiketa lana egitea ere, euren dago. Kiloka zabor biltzen dute Aizkorri inguruetan. Nahiko zikinak omen gara, mendira eramandakoa jaitea asko kostatzen omen zaigu. Gainera, plastiko eta zilarrezko papera oso txarra da naturarentzat goarden esanetan, ez baitira desegiten. Edukiontzia zerbaitekarako daude mendi irispideetan. Piskanaka hala ere, jendea sentsibilizatzen ari dela dirudi.

‘Koto soziala’

Usoek iparretik hegorako bidea egin ondoren, izaten da oraindik ere ehizerako aukera. Otzaurte inguruetan, maiatza bitartean: koto soziala. Diputazioak aurrekontu garrantzitsu bat jartzen du faisanak eta eperrak erosteko. Eguna argitu aurretik gidariak hegaztiak uzten ditu basoan, eta 4-6 ehiztari taldea gidariakin abiatzen da. Guztira 7 lote izaten dira. Gehienez 24 pieza bota daitezke. Eta botatzen den pieza bakoitzeko 1.200 pezeta ordainduko da. Gidaria ere ehiztariak berak ordaintzen du. Ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan izaten da koto soziala. Arrakasta handia du ehiza mota honek, zozketa egiten da ehiztarien artean eguna eta lotea zehazteko.

↳ Loinaz Agirre eta Mikel Albisu



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 80 10 66
80 10 70 (Etxea)

Olaberria Kalea, 6
ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Osaki belardendan, Igartza Oletako kioskoan, Begue janaridendan, Montoia harategian, Eroslen.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardendan, Muño denda Urdanetan.

Zegaman: Kooperatiban, Maria Jesusen dendan, Arrondon.

Segurako Erosle eta **Idiazabalgo** Alda-nondon.



LAZKAO
GARAJEA

RENAULT

AGENTZIA

Senpere Industrialdea

☎ 882442-888901

Faxa: 888901

LAZKAO

Ataun, San Martin jaien egitaraua

Azaroak 4, larunbata:

13:00etan: Kalejira trikitilari eta buruhandiekin.

14:00etan: Haurren bazkaria Joxemiel Barandiaran Eskolan. Ondoren jolasak.

17:00etan: Kukubiltxo taldearekin jaialdia kiroldegian.

20:00etan: Ataungo Abesbatza eta Beasaingo akordeoi taldearen kontzertua Elizan.

Azaroak 5, igandea:

11:00etan: Ataungo Hiru Auzoetako XVI. Korrikaldia.

17:00etan: Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako kanporaketa.

Azaroak 19, ostirala:

12:00etan: Juntadizioa eta ondoren poteoa txarangarekin.

14:00etan: Kuadrilen arteko bazkaria Victor Jatetxean. (Aurrez txartelak erosi behar dira bertan). Ondoren zenbait joku.

20:00etan: Merienda afaria.

22:00etan: Pekata Minuta antzezlanaren Auzoeta Udal Kiroldegian.

24:00etan: Izadi taldearekin dantzaldia.



Azaroak 11, larunbata:

10:00etan: Kalejira herriko txistulari eta trikitilariekin.

11:00etan: Meza Nagusia. Ondoren bertsolari eta trikitilariak kalustran. Eta gero salda beroa Atsedan Toki elkartearen.

13:30ean: 80 urte bete edo eta aurten beteko dituztenei omenaldia Bitorrenen. Ondoren adinekoen bazkaria.

16:30ean: Mus txapelketa Aizkoate elkartearen.

21:30ean: Kontzertua: Tapia eta Leturia Band, Def Con Dos, Siniestro Total.

00:30ean: Izadi taldearekin dantzaldia. Mozorro gaua izango da eta sari ematea dantzaldi amaieran. Goizaldera txokolatada eta ondoren matutina.

Azaroak 12, igandea:

10:00etan: Dultzaineroak.

12:00etan: Toka txapelketa.

18:00etan: Jentilaren etorrera. Ondoren mondeju jana.

20:00etan: Orkestinarekin dantzaldia kalustran. Afal ondoren dantzaldiak jarraituko du.



ERROTAUNDI
OKINDEGIA

Elosegi, 2 ☎ 887490 LAZKAO
S. Inazio, 17 ☎ 889707 BEASAIN
Graziñeberri etxea ☎ 180364 ATAUN

ERAUSKIN
HARATEGIA

Mondeju beltzak, txorizoak eta bertako haragia

☎ 18 00 27

Helbarrena, 11

ATAUN

Victor

Jatetxea

Ezkontzak
Jaunartzeak
Bataioak
Bazkari eta afariak

☎ 18 00 33 - 18 00 84

ATAUN

Jentilak badatoz... Atauna

Urtero bezala, aurten ere, mendiak utzi eta Ataungo kalera jeitsiko dira jentilak. Mikelats, Tartalo, Atarrabi, Alarabi, eta beste jentil gehiago koba-zuloak utzi eta zibilizazioan sartuko dira, azaroaren 12an, arratsaldeko 6etan.

Milaka urtetako usadio, ohitura eta sinismenak konstatzera datoz. Kale-zuloan, apaiz, alkate, eskribau, ikazkin, ermentari eta bestelako ataundarrak izango dituzte zai. Han izango dira, Samartin Txiki, sorginak, aziak, Mateo-txistu, pertsonai ezagunak...

Festa ezaguna

Euskal Herri guztian ezaguna egin da Ataungo Jentilen etorrera. Orain 15 urte, 1980an egin zen lehenbizikoz.

Gauetz, ilundu eta gero, egiten den festa da. Jentilak menditik datoz, larruz jantzita, makilak eta *antortxak* eskuetan. Ehunda gehiago ataundarrek hartzen dute parte festa-antzerkian. Haur ttiki-ttikiak asto gainean sartuta. 80 urte gainean dituztenak, Kixmi ikusi nahian...




Urtetik urtera geroz eta jende gehiago inguratzen da Atauna, garai bateko esaunda, istorio eta ipuin zaharretan oinarrituta festa-ikuskizuna ikustera.


Ataun mito-leku

Jakina da, Ataunen koba-zulo, trikuharrri, eta garai bateko leku berezi asko dela. Guzti horrekin batera, asko eta asko dira, esaundak, ipuiak, eta kontakizun harrigarriak. Joxemiel Barandiaran zenak jaso eta argitara emandakoak gehienak. Baserri askotan kontatu izan dira beheko sutondoan, Jentil, Basajaun, sorgin eta urrez beteta dauden idi-narruen kontuak.

Izan al zen jentilik?

Eta Basajaunik? Eta sorginik? Asmakizunak al dira? *Izena don guztie emen da.* Hori dio esaera zahar batek. Beste batek diona egingo dugu: *direnik ez da sinistu behar, baina ez direla ez da esan behar.*

 Jon Aizpurua



Doroteo Barandiaran bandoa jo eta jo.

Grupo Bateak

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Hirigoién, 12

☎ 88 86 20

Tfno. mugikorra: 908 57 91 92

Faxa: 88 91 18

LAZKAO

INAZIO GARMENDIA Harategia

☎ 18 00 32

Dorronsoró-enea
ATAUN

AGAUTZ trikitilariak

Bai jaunartze, sagardotegi edo edozein ospakizunetarako zuen zerbitzura.

Dei ezazu:
ATAUN

☎ 18 02 75
18 04 08

ATAUN


Aiton-amonei omenaldia

Herriko 4 aiton-amonei omenaldia egingo zaie, festa giroan, San Martin egunez. 80 urte jo dituzte laurak aurten. Ohorea eta eskerra jasoko dutenak hauek dira: Domingo Imaz (Amundarain baserrikoa), Bittori Barandiaran (Iran baserrikoa), Doroteo Barandiaran (Doroteonekoa) eta Julian Lizarrola (Gomensorokoa).

Jubilatuena eguna da San Martin eguna eta meza nagusi, bertsolari, salda bero eta bazkaria izango dituzte. Omenaldia ordubata t'erditan izango da Victor jatorrean eta bertan izango da Roman Sodupe Gipuzkoako Aldun Nagusia.

Gipuzkoako txapelkun eskoban

Antonio Goikoetxea (Iturtxo) eta Joxepa Etxeberria (Ustatxo Goikoa) senar-emazteak, Gipuzkoako buru dira eskoba karta-jokuan. Jubilatu eta Pensionisten Elkarteak antolatu duen txapelketa honetan, Ataunen, Olaberrin, Beasainen eta finala Añorgan jokatu behar izan dute. Azkeneko etsaiak, Paisai San Juanekoak zituzten.



Joxepa eta Antonio Gipuzkoako txapelkun dira eskoban.

Bi urtez behin egiten den txapelketa da eta datorren urtean, Euskal Herriko txapelketan hartuko dute parte, Gipuzkoako buru diren aldetik. Irabazi zuten saria Atsedeen-Tokin dago dotore eta dominak berriz etxean. Zorionak.

Joxe Munduatek pott

Gauzak etzaizkio berak nahi bezala atera. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan zerbait haundia egiteko asmoa zuen Aiarreko Joxek, baina egun txarra izan zuen oso Usurbilen, urriaren 20an egin zen saioan. Azken postuan geratu

zen, 532 punturekin eta zaila izango du orain puntuz aurrera jarraitzea. Etorriko dira garai hobek. Animo Joxe eta ez etsi!

Eta herrian, datorren igandez, bertsoak izango ditugu Gipuzkoako Txapelketakoak. Ikus agenda.

6 herritar epai-mahaiko

Jurado kontu hau dela eta ez dela, 6 ataundar izendatu dituzte epai-mahaiko izateko. Zotz eginda erabakitzen dira izenak. Herritar hauei esan zaie: Jose

Inazio Agirre Begiristain, Clementina Arratibel Albisu, Iker Barriola Etxeberria, Dolores Etxeberria Maiza, Fermin Jauregi Apalategi eta Karmen Tolosa Begiristain. Erreklamazioa aurkeztu nahi badute, azaroaren 15era bitarteko epea dute.

Heriotza

Joxe Urdangarin Agirre, Olazakoa, 86 urte zituela hil zen, urriaren 17an. Atsekabean lagun familiarrekoei.

Jon Aizpurua



✓ Eguneroko menua, 750 pzta.
✓ Karta, batz bestea, 2.000 pzta.
☎ 18 00 19 ATAUN S. Martin

JOSUNE ARRAINDEGIA

Altzanipe
ATAUN (S Martin) ☎ 18 03 67



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN

Agurtzane

Heapaindegia

Altzanipe, 2 Tel. 18 02 93
20211 ATAUN (San Martin)

SUKIA HARATEGIA

Festa onak pasa herritarrok!

San Martin
ATAUN ☎ 18 03 45

Hemen dira Sanmartinak

San Martin eguna larunbata dugu aurren. Bezpera, ostirala eta urtero bezala, San Martin bezperan, gaztina jatea. 300 kilo gaztina ekarriko dira Galizia aldetik. Erre, berriz, Pagosan. Eta xentimorik ordaindu gabe, nahi adina gaztina jateko aukera izango da. Ondoren, hain famatuak egin diren trikitilariak: Gozategitarrak. 9ak inguruan hasiko dute emanaldia, bukatu, berriz, auskalo. Hori bai, goizaldeko 4etan, ekintza mundiala: txerri-tropikalaren harrapaketa. Bikotea aurkitu, hanka bana lotu eta segi txerriaren atzetik!

Larunbatean, denetarik izango duzue, gusto guztietarako. Eta agian ezusteren bat edo beste izango da. Ah! 19:00etan, Ana eta Jon Mikel aramatar trikitilarien saioa izango da, Mari Jose eta Gotzon itsasondotarrekin batera.

Eta jaiak bukatzeko, ezkondu eta ezkongabeen arteko herri kirolak. Trontzan, koskolak bildu, zakua eraman eta korrikan egin beharko dute parte hartzaileek. Ondoren, berriz, Izaro eta Jonekin erromeria izango da, eta honekin, bukatu da, bukatu da, akabo!

Jexux Mari Etxeberria Kultur zinegotziak adierazi digunez herritarrentzako festak dira Aramakoak. Beraz, badakizue, lanak utzi eta zoazte festara! Jarraian egunez-eguneko egitaraua duzue.



Azaroak 10, ostirala:

20:00etan: Txupinazoa.

20:30ean: Gaztina jana. Ondoren Gozategi taldearekin dantzaldia.

04:00etan: Txerri-tropikalaren harrapaketa.

Azaroak 11, larunbata:

10:00etan: Alegiko txistulariekin goizeresia.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Hamaiketako.

13:00etan: III. Pala txapelketaren finala.

16:00etan: Mus txapelketa herrikoia.

16:30ean: Marrazki txapelketa, herritarrentzat.

17:00etan: Ume jolasak herritarrentzat.

19:00etan: Herriko trikitilariak.

23:00etan: Triki-Beltz taldearekin gaupasa.

01:00etan: Gau-criteriumna.

Azaroak 12, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Eskuzko pilota partiduak.

18:00etan: Herri kirolak: ezkonduak ezkongabeen aurka.

20:00etan: Izaro eta Jonekin erromeria.



ARAMAKO UDALA

Arama Gipuzkoako herririk txikienetako bat da (1,3 kilometro karratu ditu). Ibares errota Erret Bidetik Aramara sartzeko zegoen zubi ondoan dago kokatua. Aurreko mendekoa da eta, etenalditxo baten ondoren, oraindik martxan dago. San Martin parroikia da herriari nortasuna ematen diona. Bertan dagoen Amabirjinaren



taila da aintzinatik jasotako argibide bakarra. 93etik estalitako

pelotaleku zoragarri bat du. Ezagutzekoak dira Apaiz etxea, Iriarte eta Iturrioz baserriak.

Azaroaren 11n dira festak. San Martin bezperan gaztain jatea izango dugu: gaztainak eta ardoa Udalaren kontu. Herritar nahiz kanpotarrak gonbidaturik gelditzen zarete.

Asmube Emakume Elkartearen 5. urteurrena

Hitzaldi eta ospakizun ezberdinetan betiko emakumeak elkartzen zirela oharturik, elkarte bat sortzearen ideia piztu zitzaizen duela 5 urte zenbait emakumeri. Ideiari hainbat jira eta bira eman ondoren Asmube sortu zen. Hasieran ez zuten aretorik, eta Udalletxeari eskaera luzatuz lortu zuten Kale Nagusiko 40. zenbakian duten aretotxoak. Beraiek elkartzeko, denbora pasatzeko, kultura mamitzeko eta zenbait gai buruz ikasteko helburua zuten eta 5 urte hauetan horretan aritu dira atse-denik gabe.

Hasiera batean 25/30 bazkide inguru baziren ere, gaur egun 134 dira. 18 urtez gorako edonor egin daiteke bazkide. Harrigarria badirudi ere, gizonezkoen bazkideetza onartzen da. Bazkide izatearen abantailak ikastaroetan eta mota ezberdinetako ekintzetan dirulaguntzak izatea eta bazkide ez direnen aurrean lehentasuna izatea da. Ikastaro eta ekintza asko izaten dira urtean zehar, horien artean aipatu psikologiako ikastaroa, autoestimakoa, izakerakoa, yoga e.a. Guzti hauetatik arrakastatsuenak yoga eta oleo pinturako ikastaroak direnez, hauek urte osoan mantenduko dira eta bestelako ikastaroak noizbehinkakoak izango dira.

Hau guztia 1990eko azaroaren 9an, aretoaren inaugurazioarekin jarri zen martxan ofizialki, eta V. urteurrena dela-eta, azaroaren 6tik 10era bitartean Beasaingo Emakumeen Elkarteak hitzaldi, ikastaro, filme, proiektio eta bestelako ekitaldiak antolatu ditu. Emakundeko zuzendaria den Txaro Arteagak irekiko ditu ospakizunak, emakumeen elkarte eta emakumei buruzko munduko IV. konferentziaren berri emanez. (Egitaraua agendan).

Udazken kulturalari agur

Udazken kulturalen izandako lehiaketan emaitzekin gatoz. Arrano Kultur Elkarteak antolatutako Aire Zabaleko Pintura lehiaketan, guztira 12 sari banatu ziren: lehenengo saria, helduen mailan, Joxe Zufiaurrek jaso zuen, Esteban Orozek bigarrena eta Juan Jose Altunak hirugarrena; gazteen mailan, berriz,

18-GOIERRITARRA



Gorka Zubizarretak eta Eluska Zabalo. Herritarrentzat ere izan zen saririk: Iñigo Fernandez de Nograno, Iker Dorronsoro eta Gorka Larrea izan ziren irabazle helduen mailan; gazteetan berriz, Maitane Pejenaute eta Nagore Contreras.

Argazki Rallyan Patxi Franco legazpiarra, Javier Fernandez olaberritarra eta Juan Carlos Ganido beasaindarrak izan ziren irabazle. Herri mailako saria Ruben Sanchezek jaso zuen. Errexil-sagar lehiaketan Lazkaoko Altuna baserriko Maria Jesus Mujika izan zen irabazle, Gabiriako Jauregi baserriko Martina Arratibel bigarren eta Gabiriako Agerreberri baserriko Maria Etxezarreta hirugarren. Bestalde, Postuen Dotoretasun lehiaketan, Gabiriako Agerreberri baserriko Maria Etxezarretak lortu zuen lehen saria, 2.a Arriarango Iturritza baserriko Estefani Albizuk eta 3.a Atari-Eder baserriko Rosaritik.

AITZGORRI MENDIZALE ELKARTEA
FINALISTA EGUNA
5 - 11 - 1995



Finalista eguna

Igandero mendira irteerak egiten dituzte Aitzgorri Mendizaleko bazkideek, bazkide ez direnek eta ume talde batek.


Hauek guztiak urtean zehar mendi sorta pila bat igo ondoren, elkarteak kirol ordu horiekin amaitzeko festa antolatzen du. Hasiera batean urte bukaerako festa hau Usurbe mendian ospatzen zen. San Gregorio ermittan ere ospatu izan da noiz edo noiz. Baina urtaro honetan eguraldia oso fidagarria ez denez, Garinen ospatzeko erabakia hartu zen, bertako pilotalekua eta elkarte mendizaleen esku jartzen baitute

Garingo Elkarteko bazkideek.

Igandean izango da aurtengo festa. Baina Garina iristeko, Murumenditik buelta egingo dute. Mendizaleen oroienez ospatuko den meza izango da eguerdiko 12etan. Ondoren oparien banaketarekin hasiko dira. 60 domina banatuko dira gazte eta helduen artean. 20 dominak, elkarteak antolaturiko irteera gehienak egin dituztenek jasoko dituzte. Bestalde, bazkide bati oroigarritzko plaka emango zaio, urtez-urte zenbait ekintza aurrera ateratzeko eskeini duen laguntza eskertzeko. Bera nor den jakiteko, igandearte itxaron beharko da. Ondoren, bazkari herrikoia da, musikaz eta alaitasunez beterik. Arratsaldea, berriz, jolasten, dantzan eta umoretsu pasa ondoren, autobusa hartuz Beasaina jeitsiko dira. Koskola txaranga izango dute zai eta honen laguntzaz Elkartera joan, eta txokolate janarekin amaituko da eguna.

Begirale ikastaroa

Aisialdiko saioretan ume eta gaztetxoekin aritzeko begirale eta zuzendari ikastaroak antolatzeko asmoa du Udaleko Euskara-Zerbitzuak. Begirale ikastaroak 200 ikastordu izango ditu larunbat-igandetan eta zuzendari ikastaroak 100 ikastordu inguru. Biak euskaraz izango dira eta Beasainen emaitzeko asmoa dago. Zuzendari-ikastaroan eskuhartzeko, begirale titulua behar da eta 1996an gutxienez ere 21 urte bete behar dira. Izena azaroaren 17a baino lehen eman beharko da Euskara-Zerbitzuan (telefonoa: 88 57 12).

 Izaskun Salazar

Egunkaria berriaren sorrera ospatzen

Urriak 20an 80 lagun elkartu ziren Gerriko Elkartearen *Euskaldunon Egunkaria* berriaren irteera ospatzeko. Hone-lako egun berezia ospatzeko kantu-afaria antolatu zen. Bertan, 400 talo, txistorra, hirugierra, txokolatea eta Iztueta baserriko esnea dastatu ahal izan zuten jaira inguratu ziren guztiek. Afalostean, soinu eta panderoarekin giro ezin hobea lortu zen. Abestuz eta dantzan gaueko 12ak arte aritu ziren, eta ondoren *egunkari* berria heldu eta banatu ondoren estreinatzen hasi ziren.

Kutsadura Agauntzan

Urriaren 25ean, 3 amuarrain eta 100 madrila hilik azaldu ziren Agauntza errekan. Herritar batek udaltzainei egoera adierazi ondoren, hauek Diputazioari berri eman zien. Diputazioari ingurugiro teknikariek muestrak hartu zituzten baina oraindik ez dute jakitera eman azterketen erantzunak. Beraz, ez dakigu oraindik isurketen jatorria.



Txaranga eta talogileak Britainiara

Antzar Gazteak txaranga eta talogileak, hilaren 3 In joan ziren Britainiara, Euskal Herria eta Britainaren arteko



senidetasuna ospatzeko. Asteazkenean, aizkolari eta beste zenbait herri kirol eskeini ondoren, bertakoek ere zenbait ekimen kultural egin zituzten. Senidetasun ekitaldi hau, Amnistiaren Aldeko Batzordeek eta britainiar abertzaleek antolatu dute.

Ikastaroak

Egur pintaketa, tinta-keta eta barniz ikastaroa antolatu du Udalak hile honetarako. Ikastaroak, San Prudentzio ikastetxean, astelehen eta ostegunetan izango dira, 2 orduko saioetan.

Parte hartu nahi dutenek azaroak 3 baino lehen Udaleko kultur arloan eman beharko dute izena, 1.000 pezeta ordainuz.


Antzerki saioak

Datorren azaroak 16, ostegunetan, "Bederan 1" antzerki taldeak "Eztei gaua" lana eskeiniko du iluntzeko 9etan Areria zineman. Abenduaren 1ean berriz, "Hika" taldeak "Henry Bengoa inbentarium", Bernardo Atxagaren liburuan oinarritutako lana eskeiniko du. Abenduaren 15ean berriro ere, "Bederan 1"-ek "Zu(t) gabe" antzestuko du.

Sarrera 500 pezetakoa izango da. Baina, 3 saioetarako bonoa eskuratzuz, hirurak 800 pezetan ikusi ahal litezke. Bonoak Udaletxean daude salgai.

Egin mus txapelketa

Azaroaren 4an izango da Egin mus txapelketako herriko kanporaketa. Partidak Gerriko izango dira arratsaldeko 4,30etan hasita. Bikote partehartzaile bakoitzak 3.000 pezeta ordaindu beharko ditu.

 Iraida Martin



Munduko
hizkuntza
zentruen
erakunde
handiena

 **inlingua**

HIZKUNTZAK

95 -96 IKASTURTEA

5 urtetik gorako haurrentzako talde bereziak
Cambridgeko azterketarako prestaketa

ORDIZIA
Elkano,8
☎ 88 11 37

BEASAIN
JM Iturrioz, 11
☎ 16 05 72

ZUMARRAGA
Iparragirre,8
☎ 72 22 23

Segundo Azurmendi Jubilatu Egunean omendua

Joan den urriaren 8an, Jubilatu Eguna ospatu zen Zegaman. Zer esanik ez egun handia izan zela beraientzat. Meza entzun ondoren, Udal Kirodegian bazkari ederra eman zien Udalak eta ondoren hainbat eta hainbat opari banatu ziren. Etxean geratu zirenei ere tarta eta txanpain botila bana banatu zitzaizen bezperan, haiek ere egun hau famili giroan ospa zezaten.

Aipagarria da Segundo Azurmendi Zabalarri, herriko 2. zaharrenari Udalak eskaini zion oroigarria, aurten 94 urte beteak dituelako. Bere emazteak, Anastasia Larrea Arakamak, iaz jaso zuen oroigarri hau, herriko zaharrena bezala. Egun 95 urte beteak ditu. Zorionak beraz guztioi eta urte askotan egun eder hau ospatzeko gai izan zaitezte!

San Martin azoka

Aurten larunbata egokitu zaigu azaroak 11, San Martin eguna. Baserrita-




rren eguna izaten da Zegaman egun hau. Lehiaketak, erakusketak... azken batean, ondo pasatzeko eguna. Goizeko 10:30ean, herriko txistularien kalejirarekin hasiko da eguna. Ondoren, herriko abereen lehiaketa izango da. Hain zuzen ere, behiak, behorrak, ardiak (5 ardi eta ahari bateko taldea) eta bildotsak (5 urruza eta ahari bateko taldea) lehiatuko dira. Horrekin batera, landare, fruitu eta barazkien erakuske-

tak, eta artisau eta eskulan-gintza erakusketak izango dira. 13:00etan Kale antzerkia izango da. Eta 13:30ean, abere lehiaketaren sari banaketak.

Arratsalde parterako, buruhandi eta erraldoien kalejira izango da, trikitilarien laguntzarekin, 17:30ean hasita, eguraldiak laguntzen badu behintzat. 18:30ean, berriz, trontza eta aizkora apustua izango da: Zegama Ziordiren aurka. Eta gaueko

11etatik ordubietara, trikitixarekin dantzaldia.

Goizean 11:00etatik 14:30ra eta arratsaldean 17:00etatik 19:00etara, Maria Luisa Gorrotxategi zegamararren pintura erakusketa ikusteko aukera izango da Kultur Etxean.

 *Edurne Albizu*

ZALDIBIA

Rosa Armendariz irabazle mondeju lehiaketan

Joan den igandean II. Ardiki Eguna egin zen Zaldibian. Mondeju eta gazta lehiaketa ziren ekintzarik garrantzitsuenak. Mondeju lehiaketan, hiru zaldibitarrek jaso zituzten lehen hiru sariak: Rosa Armendariz, Asun Etxeberriak eta Inazio Olano. Guztira 29 mondeju-sorta aurkeztu ziren lehiaketara.

Gaztarik onena M. J. Arzarena

Aralarko 15 artzainek hartu zuten parte gazta-lehiaketan, eta Itsasondoko Maria Jose Arza izan zen garaile. Ataungo Isidro Sukia geratu zen bigarren eta Zaldibiko Gerardo Garmendiak lortu zuen hirugarren postua. Bi lehiaketetan, sariak, hurrenez hurren, 50.000, 30.000 eta 20.000 pezekoak izan ziren.

20-GOIERRITARRA

Ondo antolatuta


Igandeko II. Ardiki Eguna egun bikaina izan zen. Bistan da antolatzaileek lan asko egin zutela. Jendeak ere ondo erantzun zuen. Bestalde, lehen aipaturako lehiaketa horiez gain, bestelako ikuskizunik ere izan zen, hala nola artile lantzea, mondejuak nola egiten diren, erakusketa etnografikoa, gazta ontze, gazta egite, etab. Hain zuzen, Urretagoeneko Migel Antonio Sukia, 95 urteko artzaina aritu zen azkeneko eginkizun honetan.

Begiristain, Egaña eta Igarzabal bertsolarien lana ere txukuna izan zen. Trikitiak eta txalapartak, berriz, giroari eusten asko lagundu zuten. Bazkaltzen 200 lagun izan ziren.

Antolatzaileen esanetan, bi helburu

zituena igandeko ekintzak. Batetik, gure aurrekoen kultura ezagutarazi eta gorde; baina, bestetik, hemengo produktua erakutsi eta merkatuan tokia izan dezaten ahalegindu, artzantza beste bizibide bat gehiago izan dadin.

Anekdotak txiki bat dugu kontatzeko. Arbizutik ere iritsi zen mondeju-kazuela, lehiaketan parte hartzeko asmoz. Baina mondeju hauek osagai bat gehiago zuten, arrotza hain zuzen, eta ez zuten parte hartzerik izan. Kazuela horrek zeukan presentazioa izugarria zen, ordea, gibelerrai edo barrukiz apainduta, eta horren aipamena egin nahi izan zuten antolatzaileek.

 *Rufino Iraola*

Euskara merkatal mundura kanpaina aurrera

Jakingo duzuen ez azken Ordi-ziako Udalak "merkatal munduan euskara sustatzeko egitasmoa"ri. Honela, herriko denda, taberna, kutxa, aseguruetxe e.a bisitatu ziren. Bisita horietan establezimenduko hizkuntz egoera deskribatu zuten eta euskarara itzultzeko materialeak jaso. Guztira 120 inguru bisita egin ziren hiru helburu nagusi-ekin: establezimenduetan euskararen presentzia handitzea, enplegatuen euskara maila hobetzea eta barne nahiz kanpo harremanak euskaraz garatuko dituen establezimendu-sarea sortzea.

Bigarren bisita batean, aurretik aipatutako helburu horiek lortzeko, Udalak eskaintza batzuk luzatu zituen eta dendariak konpromezu batzuk onartu zituzten: ohizko klaseak enplegatuen euskara maila hobetzeko, itzulpenak


eta zuzenketak, eta barne funtzionamendua eta harremanak euskaraz egitea.

Eskaintza guzti hauek hitzarmen batzutan aurkeztu ziren eta establezimendu bakoitzaren erantzuna jaso zen. Orain, berriz, jarraipenari ekingo zaio, hitzarmenok noraino bete diren ikusteko eta konpromezu berriak hartzeko aukerarik dagoen ikusteko. Hain zuzen joaneko astelehenean ekin zitzaion jarraipen honi.

Aipatu baita ere hasiera batean 6 herri izan zirela kanpaina hau aurrera eramaten saiatu zirenak. Baina gaur izan dituen emaitza onak ikusita, beste hainbat herritako Udalak ere animatu omen dira egitasmo hau aurrera eramatera.

Herri Antzokia zabalik

Obrak zirela-eta hiru hilabetez itxita egon ondoren, aurreko astebukaeran ireki zuten Herri Antzokia. Dakizueenez burutu diren obrek barne egitura garbitu eta indartzea zuten helburu, terrazatik ura sartu baita azken urteotan. Dena den, zinema irekita egongo den arren, obrak ez daude amaituta. Barne egitura pitzatuta zegoen eta ura presioan botata garbitzea lortu da, ondoren morteroa erabiliz indartzeko. Baina terraza konpondu ezean bere horretan jarraituko du arazoak. Honela bigarren fase bati ekingo zaio terraza altxatuz, iragazteinduz edo impermeabilizatuz eta berriro eraikiaz. Aurrekontua 3 milioi ingurukoa omen da.

 Aitor Calvillo

ORMAIZTEGI

Jubilatuek beraien eguna izango dute igandean

Aurten ere urtero bezala, Jubilatu Elkarteak Jubilatuek Eguna antolatu du azaroaren 5erako. Gure herriko jubilatuek beraien eguna egitarau zabalez antolatu dute. Eguerdiko 12etako Meza Nagusiarekin emango zaie hasera egun horretako ekitaldiei. Jubilatuek Elkartearen hildakoan antolatutako meza izango da.

Eguerdiko ordu bietan Lierniko Mujika Jatetxean bazkaria izango dute. Menua hau da: bitartekoak, salda edo krema, legatza frijituta, solomiloa edo arkumea, tarta eta txanpaina, kafea, kopa eta purua.

Bazkalostean Jubilatuek Elkartearen urteroko ohiturari jarraituz, ondo merezitako omenaldi beroa eskeiniko die elkartearen kide diren bi herritarrei: Baltasar Manzidor eta Kasilda Iurretari. Giroa alaitzeko trikitilariak ere bertan izango dituzte.

Ezinaren ondorioz edo... bertara joa-terik izango ez duen jubilatuaren batekin bizi direnei, batzordekideren bati ho-



Jubilatuak aurten ere Liernin elkartuko dira.

ren berri ematea eskatzen zaie. Jakin ezaren ondorioz, inor ahaztuta gera ez dadin.

Autobusa eguerdiko 1:45ean aterako da Jubilatu Egoitzaren ondotik. Itzulera, berriz, arratsaldeko 6:30ean izango da.


Irizarrek autobus berria

Irizar Kooperatibak *Intercentury* ize-

neko autobusa aurkeztu zuen urriaren 18an. *Intercentury* ibilbide motzak betetzeko diseinatu izan da, bertan linea aerodinamikoak eta azken teknologiak bat egiten dute. Koloreen armonia eta bezeroaren nahi guztiak bat etorriko dira luxuzko autobus honetan.

Irizarrek 106 urtetako historia luzea duen arren, 1995. urtea historia luze horretako garrantzitsuenetakoa bat izan da. Gaur egun 350 lanpostu zuzen eta 120 zeharkako ditu eta urte honen bukaeran 9.000 milioi pezeta

inguruko fakturazioa lortu du. Aurtengo urtean, eginiko lanak errekonozituriko sariak jaso ditu, hala nola, Felipe Printzearen eskutik jasotako saria; Espainiako urteko autobus bezala izendatu izana; Gipuzkoako enpresa esportatzaileenarena... Nazioarte mailan burutu izan duen ahalegina ere guztiz aipagarria da, Alsarekin batera Txinan enpresa martxan jarri baitu.

 Aitziber Murua

San Migel jaiak gogoratuz

Irailaren 29an San Migel jaiak izan genituen, ostegunetik hasi eta igandea bitartean. Ostegunean, herri afariarekin hasera eman zitzairen. Nahiz eta jende gutxi bizi den herria izan, denak bertan ziren giro ederrean. Afalostean, jendea etxera joan ahala, han azaldu zen amezketar bat. Gizon berritsua, zenbait bertso eta txiste egin zituen. Piztutako purua galtzen poltsikoan zuela eta garagardoa alkondarakoan. Bera ikusita, esan zitekeen Pernando Amezketarrak baduela jarraitzaileak. Txino bezala ezaguna da bera.

San Migel egunean aipagarriena gaueko bertso-saioa izan zen. Hotza egin arren, ezin Sebastian, Egaña, Peña, Sarasua eta Sorozabalen saio ederra entzun gabe geratu. Bestela, nola ulertu horrelako eguraldiarekin plaza jendez beteta egotea?

Larunbatean, usokume tiraketa herrikoian, 25en artean Iñigo Garmendia gaztea izan zen garaile. Ilunabarrean berriz, dantza txapelketa izan zen. Ikusgarria haien erritmo eta arintasuna, ez zuten lan erraza izan epaimahai-koek.

Azken eguna, igandea, hasteko meza nagusia; elizkizun ederra eman zuen herrira etorri berria den Fidel Tolosa erretore berriak. Ondoren txirindulari igoera, Gaintzako aldapak txiki bihurtzeko gaitasuna izan zutenen artean. Arratsaldean, berriz, asto lasterketa ederra izan zen. Astoen lasterketarako



ohitura eza eta *zaldizkoen* leku onetik eramateko berritsukeriak erantsi zioten falta zen guztia. Merezi zuen ikusteak, jendearen barreak horren seinale.

Festak aipatzerakoan, ezin pasa mondejuak aipatu gabe. Aurten ezustekoa Udalak eskeini zuen, mondejuak eta zagi-ardoa jartzean. Ardoa oso ona, baina, mondejuak punta-puntakoak, oso ondo eginak. Hauek bero-beroak izatearren Joxe eta Inaziok izerdi ederra bota zuten, bejondeizuela.

Ehiztari ugari

Urte garai honek ere, jendea erakartzen du Gaintzara: ehiztariak. Egun batean postuen zozketa, eta suertatu ezker, hurrengoan ehizera. Gogorra da hauen zaletasuna eta konstantzia, nahiz eta

geroz eta jende gehiago aurka eduki. Esan behar usoak pasatu direla, baina urrun, eta egun horietan haizerik ez, badirudi eguraldia ere kontra dutela.

San Martin eguna

Ezin ahaztu Gaintzan San Martin de Tours ermita dagoela, XIV. mendean egina eta orain dela urte gutxi berritua. Bertan, azaroaren 11n meza izan ohi da, baita beste ekitaldi batzuk ere. Baina besterik ez bada ere merezi du joatea, bertatik ikusten den parajeagatik bakarrik bada ere. Dakitenek esaten dutenez, berrogei eta gehiago herri-lur ikusi daitezke bertatik.

Joxe Mari Matxain

LEGORRETA

Eskulan ikastaroa Kultur Etxean

Eskulan ikastaroa antolatu du Kultur Batzordeak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Bi talde osatuko dira, bata astelehenetan eta bestea ostegunetan, bi taldeentzako ordutegia arratsaldeko 5:30tik 8etara bitartekoa izango da. Ikastaroaren iraupen osoa 30 ordutakoa izango da talde bakoitzarentzako eta ikastaroa azaroaren 20 eta 23an hasiko da Kultur Etxean. Dena den, azaroaren 16an bilera informatibo

22-GOIERRITARRA

bat izango da Kultur Etxean bertan, arratsaldeko 5:30ean.

Matrikularen kostua 1.600 pezetakoa izango da eta Udal Bulegoetan izena ematerakoan ordaindu beharko da. Izena emateko epea azaroaren 14an amaituko da.

Kuadrilen arteko futbola

Azaroaren 4an emango zaio hasera Bil-

koin Elkarteak urtero antolatu ohi duen kuadrilen arteko futbol txapelketari. Kirolez beteriko asteburuak izango ditugu, beraz, hemendik aurrera eta herriko mutilen trebezia eta astakirtenkeriekin gozatzeko aukera aproposa izango dugu.

Josune Amondarain

Lilirikuko erroiloaz ikerketa dokumentala

Aranzadi Zientzi Elkarteak, Segura, Tolosa, Oñati eta Azpeitiko artxiboetan oinarritutako ikerketa dokumentala burutu berri du Lilirikuko erroiloaz eta bere inguruaz. Bertan ondorio hauek azpimarra daitezke:

- Agirietan lekuaren izena Liliriku bezala azaltzen da, eta bertako zutabearen oinarria bi aldiz da aipatua, lehenengoa 1670ean eta bigarrena 1770ean, bietan *erroilo* hitza azaltzen da, beraz urkaketarako baino, gaizkileak ikusgai uzteko edota zigor publikoetarako izango zen.

- Herriko aktetan, 1625ean eta 1711n jendea urkatua izan zela aipatzen da. Gutxienez hiru urkatoki izan zituen Segurak XVI. eta XIX. mende bitartean: Azpillagan, San Adrianen eta herriko plazan.

- Bere jatorrizko itxurari dagokionez ez da ezer esaten bi aipamen horietan. Bertako aztarnen azterketa egin behar-ko litzateke, baina hauek ere nahiko hondatuak aurkitzen dira. Aipatu, XIX. mendean egoera juridiko eta administratiboaren berregituraketa zela eta, menpekotasun sinbolo guztiak desagertarazteko dekretua atera zela. Hau izan zen erroilo eta urkatoki askoren akabera. Oinarrian harmailadun harritzko zutabea zela esan daiteke momentuz.

- Erroiloaren inguruan, erreka ertzean azaltzen den harlanduaz, nahiz eta bere eraikuntza ezin izan den probatu, zenbait agirik dio *Aingeru guarda* ermittaren aztarnak izan daitezkeela.

Aranzadik burututako lan hau azterketa arkeologikoekin osatu behar da, datu gehiago izanda ikerketa argitzeko.

Mondejuak beltzak eta txuriak

Segura aldean mondeju txuririk egiteko ohiturarik ez da izan, beraz, hemengo mondejua beti kolore *beltzkoa* izan da, ardi odolez egindakoa, eta beranduago egiten den txerri odolezko odolkia baino fiñagoa, gustoz eta itxuraz.

Sastrenekoek urtero San Migeletatik Santu Guztienetara bitartean, etxerako



Sastrenean mondejuak egiteko egunean Maritxu Urreta izaten da kantitateak kontrolatu, hesteetan sartu eta dena gainbegiratzen duena. Migel Izagirre, senarra, mondejuei lehen egosia eman eta zintzilikatzeaz arduratzen da. Gorka Izagirre, semea, eta Inaxio Imaz, iloba, sebo, porru, tipula eta pipar txikitzaileak dira.

mondeju beltz nahiz txuriak egiteko ohitura dute. Ardia Axintxio Lardizabali errosia, eta porruak, tipulak, perrejila, pipar minak eta arrautzak etxeokak. Ez dira bakarrak, Imaz eta Madalena jate-txeetan ere bertan egindako mondeju *beltz* eder askoak proba daitezke.

Gaztina erreka Atsedenen

Santu Guztienetan hasi eta Gabon bezperara arte gaztina erre garaia izango da Atsedeen jubilatuta elkartean. Ohitura, Arrondotarrak bertan egon zirenetik dator, Felix Arrondo aritzen zen orduan gaztina erreketan. Baina orain 6 urte taberna hartu zutenetik, Tina Rodrigues da lan hontaz arduratzen dena. Gaztina, txikiagoak eta borobilagoak, Galiziatik ekartzen dituzte, eta Tina dioenez gustoa ere handiagoa dute. Danbolinean erretzen dituzte taberna aurreko patioan, egunean 8ren bat kilo eta asteburuetan 16 ere bai. Zerbitzatu berriz, bertan jateko, edota enkarguz, eramateko ere bai.

Jesus R. Jauregi saritua

Epaimahaikoen artean izan dieten begirune eskasa dela eta, Joxe Mari Telleriarekin batera Zarauzko Ixpila plazako proiektutik erretiratu ondoren, herri bereko Abendaño industrialdearen bereizgarria izango den eskultura lehia-ketan, Foru Aldundiko arte kritikoek

Jesus R. Jauregi Seguraratuari eman diote lan onenaren saria. Lehiaketa, industrialdeko zuzendaritzak eta Foru Aldundiak antolatua izan da estatu mailan, eta bertara 70en bat eskultorek aurkeztu dituzte beren maketak. Corten altzairuzko eskultura Lezon gauzatuko du Jesussek eta hilabete barru edo, izango da ikusgai Zarauzko Abendaño industrialdean. Zabaleran 5,50 eta altueran 4,90 izango duen lan honek *Transformazio unea* du izenburutzat eta makinak materiaren gain duen aurkitzea eta jokabidea adierazten du.




Jesusek Lasarten, Elgoibarren eta Zarauzen dituen eskulturez gain, aurrerantzean Zarauzko industrialdean eta Bilboko San Inazio auzoan ere apreziatu ahal izango dira bere lanak.

Behin-behineko epaimahaikideak

Estatistika Instituto Nazionalak aukeratuta, Joxe Mari Mujika Alustiza, Maria Arrondo Landa, Leonides Gonzalez Castaño eta Inazio Urbizu Agirreurreta izango dira herri epaimahaikide probisionalak.

6. Egin mus txapelketa

Ostiralean hilaren 3an, gaueko 10etan jokatuko da Elorripe tabernan Egin egunkariak antolatu duen mus txapelketaren 6. edizioa. Inskripzioa 3000 pezeta bikoteko. Irabazleak Gipuzkoako kanporaketarako sailkatuko dira.

 Joseba Telleria

JAVIER ARRILLAGA KITARRAKOLEAK *CONTRASTES* DISKOA KALERATU DU:

“Interpretea naiz, ez konpositorea”


Zarautzen jaioa orain 46 urte, 27rekin Donostia-ra bizitzera joana, gero Oreretan beste 5 urtez, Lazkaon urtebetez eta azkenik Donostian bizi da gaur egun Javier Arrillaga, bizitza (elkarrizketa hau bezalaxe) umorez hartzen duen musikaria. Dena den, azken 17 urteotan Goierri aldean dabil lanean berak hain maite duen Kitarrazko klaseak ematen. “kitarra karrera

Madrilen egin nuen, ondoren hortik zehar ibili nintzen lantxo batzuk egiten, baina garai horietan ez zegoen gaur bezala kitarrarekin bakarrik bizia aurrera ateratzerik. Orduan Beasaina iritsi eta klaseak ematen hasi nintzen”.

Txikitandik izan zuen musikarenganako afizioa Arrillagak: “*sehaskatik dator kitik afizioa. Aitak dioenez sei hilabete eskas nituenean ‘La Traviata’ abesten nuen jada. Abeslaria nentorrela ikustean gurasoek ahaleginak egin zituzten hori horrela izan ez zedin*”. Baina ondoren Javierrek bere kabuz arrebaren kitarrarekin ikasi zuen eta 16 urterekin eltzetsua apurto eta berea zen lehen kitarra erosi zuen.

Lehen diskoa: ‘Contrastes’

Gauzak honela, karrera egin eta Beasain eta Ordiziako Musika Eskoletan hasi zen klaseak ematen. Eta bere lehen diska argitaratzeko garaia ere iritsi



zaio: ‘Contrastes’. “*Izen hau ipini diot, alde batetik, pentsatuz nik dudan nortasun nahasia eta, bestetik, abestiek ez dutelako zerikusirik batak bestearekin*”. Euskal kanta, Carlos Canorenak, Pablo Milanesenak... aurki daitezke diska honetan. Guztira 12 abestik osatzen dute eta egileak argi utzi nahi du bera interprete soila dela eta ez konpositorea: “*mundu guztiak galdetzen dit ea zergatik ez ditudan abestiak sortzen eta nik zera esaten diet: Plácido Domingo, Mercedes Sosa, Julio Iglesias... interprete hutsak direla eta arrakasta lortu dutela. Ni interpretea naiz eta atsegin ditudan kanta abesten ditut*”.

‘Contrastes’ ez litzateke argitaratu izango Pello Ramirez ordiziarraren (biolontxeloarekin) eta Angel Izkuren laguntzarik gabe. Txema Garces eta Pello Irizar beasaindarra ere agertzen dira abesti batetan ala bestean, baina

zuzeneko ekitaldiak Ramirez eta Izkurekin egiten ditu Arrillagak. Eta nola ez Juanan Ros. “*Atzetik CBS SONY disketxe amerikarra izan genuen, baina ‘canta, canta y veras’ eta azkenik Juanan Ros Beasaingo estudioa aukeratu nuen grabaketak egiteko*”, dio Javierrek bere umorea agerian utziaz.

2.000 pezetan

Argitaratu duen lehen diskoa da, dena kantatua, nahiz eta ekitaldiren batean kantaren bat instrumentu soilez jotzeko nahia agertu duen. Orain bi hilabete grabatu zuen eta piskanaka aurkezteko asmoa du Javier Arrillagak, bere kabuz eginiko lana baita (finantziazioa...). Diskoak gainera ez du denborarik, berdin dio aurreten edo datorren urtean saldu. Dena den, orainarte harrera ona izan du diska eta 2.000 pezetan dago salgai.

Segovian eginak ditu ekitaldi batzuk eta “*diskoa aurkeztu nien hango batzuei eta izugarri gustatu zitzaion*”, dio Javierrek. Azaroaren 23an Gasteizen jotzekoak dira eta gauzak ondo joanez gero, dirua lortuz gero, bi urte barru beste disko bat ateratzeko prest dago Arrillaga. Ea gauzak ondo ateratzen zaizkion eta helburuak betetan ikusten dituen.

✍ Aitor Calvillo Zurutuza

**JAUREGI
TOLDOAK SA**

Tfonaok: 880243 - 880133
BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta Opari Gaiak

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN



Tfona: 885500 ORDIZIA

Ataungo hiru auzoetako XVI. korrikaldia

Datorren igandean, azaroak 5, ospatuko da Ataungo hiru auzoetako lasterketa. Irteera goizeko 11etan emango zaio San Martingo eliza aurrean. Probak 17,8 kilometro ditu eta S. Martin, S. Gregorio, Aia, S. Gregorio, S. Martin ibilbidea egiten du. Antolatzaileak Oargi-Troskaeta eta Ataun Kirol Elkarte dira.




bete 7' eta 47''. Oraingo neurriko errekorra, Santi Gonzalez beasaindarrak 1992 urtean egin zuen: 56'35''. Herritarren errekorra berriz, Joxe Inazio Barandiaranek: ordubete minutu bat eta 15 segundu, 1982an egin zuen.

Aurten marka ontzen duenarentzat 25.000 pezetako diru-saria dago.

16 urteko historia

1979an izan zen lehen edizioa. Orduan maratoi-erdia izan zen, 21 kilometro. Lehenbiziko hiru urteetan neurri hori izan zuen baina 1992tik aurrera, gogorregia zela eta, 17,8 kilometrotan utzi zen. Klase guztietako korrikalariak hartu izan dute parte. Batzuk, atleta ezagunak: Agustin Zabaleta, Joxerramon Galarraga, Fermin Mendia Xumarra, Rikardo Toro, Joxerramon Insausti, Joxe Apalantza, Joxe Jabier Cuadrado, Pello Garmendia, Santi Gonzalez etabar.



ten. Hala ere, iaz berriro 107 korrikalari izan ziren. Askorentzat, Behobia-Donostia probarako azken saio serioa izaten da.

Ia 200 metrotara dagoen San Martingo plazatik abiatu, 400 metrotik gora dagoen Aiako plazan buelta hartu eta behera. Organizazioa eta osasun-zerbitzuak beti erne daude. Txalorik ez da falta atez-ate, baserri-baserri, ur preskoa eta animo hitzak zai.

Parte hartzea

Partizipazio handiena lehenbiziko urtean izan zen. Orduan 167 lagun izan ziren partaide. Geroztik maila eta markak ontzen joan dira eta kopurua jex-

Marka onenak


21 kilometro izan zituen lehenbiziko hiru urteetan Agustin Zabaleta leitza-rrak irabazi zuen. Marka onena: ordu

Irabazle nagusiak

Agustin Zabaleta leitza-rra, 3 aldiz (79-80-81). Joxe I. Barandiaran ataundarra, 2 aldiz (82-84). Pello Garmendia ordiziarra, 2 aldiz (91-93). Santi Gonzalez beasaindarra, 2 aldiz (92-94).

Bitxikeriak

Berezia da erabat Ataungo korrikaldia. Ia Ataun guztia korritzen

 Jon Aizpurua

URBITARTE
sagardotegia



☎ 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN

SUTEGI
taberna

San Gregorio
ATAUN ☎ 18 03 54

KAXETA
jatetxea

☎ 18 01 45 ATAUN - AIA


Justo Arrese, Donostiako ehiztari ataundarra

Justo Arrese, *Sutegi*, ataundarra, Donostiako Alde Zaharrean bizi da. Bi denda ditu bertan arrabarekin batera: Sutegi Kirolak arrebak eramaten duena eta pareko likore denda, biak ere Puerto kalean. Donostiara 1947an joan zela adierazi digu Justok: "Ataunen *Sutegi* taberna genuen eta lan asko egiten zen, baina, gazteak ginen eta beti ere kapitalera joateko ilusioa izaten zen. Denda jarri eta ondo zihoanez bi urte geroago bestea ireki genuen."

Ataunen bi etxe dituzte alokatuta: San Gregorio Txiki eta Sutegi bat aitarena eta bestea amarena. "Garai hartan *Sutegin* jende asko juntatzen zen, bai gazte eta bai zahar. Gure aitona gazteekin asko tratatzen zuen eta edozein kirol mota antolatzen zuen, karrera ziklistak e. a. Gure anai Elias ere ona zen pelotan. Ni berri txikitatik aritu nintzen ehizean. Gogoratzen naiz 11 bat urterekin San Martin egunean, eskopeta etxean harrapatu eta ehizean aritu nintzela".

Donostian urte asko eraman arren ataundar sentitzen da. Urte guztian lana dela eta, ez da geldi egoten. Nahiz eta mendia gustatu ez du denborarik hartzen Atauna etortzeko. Gainera, Ataunen zituen lagunak galdu ditu eta gazteak ez ditu ezagutzen, ia donostiartzen ere ari da. Hori bai, oporretan ez du huts egiten 1947an hasi zuen Etxegarateko zitara.

Urriaren hasieratik egoten da Beundeko postuan, urtean 50 bat egun egiten ditu bertan ehizean. Etxegarateko Ongi-Etorrin lo egiten du eta eguraldiak laguntzen duen bitartean egoten da bertan. "Soltero empedernido"



bat dela dio, bestela ez dagoela bera dabilen bezala ibiltzerik.


Postu dotorea

Ehizeko postua dagoen lekua berea da. Postua Ongi-Etorriko Andresek egin zuen, Altsásuko Joxe Aldasoro, berez ataundarra denaren laguntzaz. Justo eta Andresen postuak egitura ederra du, txukun asko dago gainera. "Gu geu gara ekologista handienak. Neri dena garbi edukitzea gustatzen zait, horrela lasaiago egoten zara. Iluntzean dena bildu eta beheko zakarrontzira botatzen dugu". Postu azpian alfombra bat ere ba du, jendeak bota zikinak ekarri ezkerro gora igo aurretik garbitzeko.

Postu honetan 15 bat urte daramatza, aurretik Maizpe-ra joaten zen. Lehenengo 8 egunetarako etorri zen, gero 12tarako... Urteak urtera gehiago. 2 hilabete ere pasa ditu, hori eguraldiak agintzen du. Eguraldi onarekin 10-11 ordu egiten ditu postuan eta bertan, ez du inoiz katarrorik harrapatu.

"Uso gutxiago dagoela ez da egia, guk iaz ikusi genituen adina uso, nik ez dut inoiz ikusi, ez uso eta ez beste hegazirik. Aurten ikusiko dugu zer den baina iaz ikaragarria izan zen, hori bai berandu etorri ziren, azaroan." Aurten oraingoz 40 uso bota dituzte, iaz baino 2 gutxiago. Joan zen urte guztian 187 bat bota zituzten, egun batean 80 inguru.

Usoak berak ehizatzen ditu, arrebak prestau Donostian eta jan, berri, ilobek, kuadrilan. Jatea baino gehiago, mendia eta ehiza gustatzen zaizkio. "Urte guztia Donostian pasata mendira etortzeko gogoia jartzen da. Neri arrebak esaten dit pinu puntan egon behar al dek bi hilabetean?, baina ni hementxe egoten naiz gustora, ez naiz New Yorkera joango. Orain gainera berandu da aldatzeko, 69 urte ditut eta jubilatuta nago. Dendan arrebari laguntzen aritzen naiz, ezer egin gabe aspertu egiten naiz eta".

 M. A. eta L. A.

MAIZTEGI ARMATEGIA

Ehizerako eta arrantzarako tresnak

Urdaneta 21

☎ 88 13 15

ORDIZIA





Goierriko manifestaziorik handiena

Argazki hau Migel Calvillo ordiziarrak eman digu. Goierriin egin den manifestaziorik erraldoiena (30.000 bat lagun) burutu zen Ordiziatik Beasaina 76-II-29an, eskualdeko ospitalea eskatzeko eta ordukoa da. Legorretako Etxeberria eta Jauregi (gobernadorea), Ordiziako J.L. Txurruka eta Bengoetxea, Ezenarro, eta beste ezagun batzuk ageri dira argazkian. Joseba Telleria GOIERRITARRAren Segurako kronistak ere ezagutu du bere burua, gurasoen ondoan.

Herri bakoitzak bere txartela eraman zuen, pegatinak atera ziren... Tolosako guardia zibilen kapitanak berriz, autorizatu egin behar manifestazioa! Hori antolatzen, Beasaingo Martin Jauregi, Zaldibiko Joxe Bernardo Garmendia eta Jexux Sukia, Idiazabalgo Xanti Agirre, e.a. ibili ziren. Urola-garaiko jendea ere bazen, baina Goierri behean egon zen kezka eta mogimendu gehien.

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8
Tel: 88 04 53

BEASAIN

GOISYSTEM

Aplicaciones Informáticas



Ordenadore salmenta eta konponketa
Programazioa neurria

Senpere Merkatal Gunea, 16. bulegoa
BEASAIN ☎ 88 79 14

IKAS EZAZU MEKANOGRAFIA



meca rapid


Urdaneta, 23-1. ☎ 887278 **ORDIZIA**

OSKARBI OINETAKOAK




Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

Kickers



K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 **ORDIZIA**



ILAZKI EDERGINTZA

Belnatur



BELNATUR etxearekin batera, bere zerbitzuak eskeini nahi dizkizu eta sari pertsonal bat oparitzen lehena izan.

Moztu behean dagoen kupoia eta hurbildu zaitetz gure zentrura, sari bat duzu zure zain.

%10eko deskontuak ditugu kabinako tratamendu guztietan: manikura, pedikura, depilazioa, aurpegi eta gorputz tratamenduak, masaia, makilaia.

Nobedadeak: betileen permanente eta tintea.


Solariuma: 10 sesioko bonua + 2 dohainik:
5.000 pezeta

Lenengo 10 bonuei
U.V.A. azeleratzaile
bana oparituko zaie.

Zure zain gaude:

Nafarroa Etorbidea, 47 behean

☎ 88 55 13 BEASAIN



GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEA

BAZKIDE BERRIEN KANPAINA



Goierritarra aldizkaria lagundu nahi baduzu, egin zaitetz bazkide

Urteko kuota: 1.500 pezeta.

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:..... Tfnoa:..... Adina:..... NAN:.....

Lanbidea:..... Banketxea:..... Bulegoa:.....

Kodea:..... Kontu zenb:.....